



"Kirolaren sektorea asko profesionalizatu da eta lan ituna ezinbestean berritu behar da"

**Abadiño |** Jokin Urkia eta Roberto Caballero Astolako kiroldegiko langileak dira. Ekainetik hona grebak egiten ari dira, Bizkaiko kiroldegietako lan hitzarmena berritu dadin eskatzeko. • 6. orrialdea

## Daliren lanak Durangon ikusteko luxuzko aukera

**MARGOLARITZA |** Irailaren 15era bitartean, Salvador Dali artista ezagunak 70eko hamarkadan eginiko zenbait obra ikusgai egongo dira Durangoko Arte eta Historia museoan. 30 obrek baino gehiagok osatzen dute erakusketa, eta artistaren azken garaiko kezkak jorratzen dituzte, heriotza edo mistizismoa, besteak beste. Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak erakusketa Durangoko museoan edukitzearen garrantzia nabarmendu du: "Hiriburuetara joan behar izaten da horrelakoak ikusteko".



## "Enpresak negozio itzela egiten ari dira gure kontura"

Euskal Herriko 80 pilotarik Emakume Pilotarien Elkarte sortu dute, eta Amaia Araiztegi hango kidea da. Emakumeen pilota bultzatzea, erregulatzea eta egituratzea dituzte helburu. Aginte makila hartuta, ez dute atzera egiteko asmorik. "Badakigu gatxa izango dena, behin baino gehiagotan jausiko garena, baina prest gaude bide hori egiteko", azaldu du Mallabiko pilotariak • 2-3





LEHIOR ELORRIAGA



**Amaia Araiztegi**  
**Mendibe**  
Emakume Pilotarien  
Elkarteko kidea  
**Mallabia | 1997**

## “Batzuek ez dute asimilatu iraultza benetan datorrela”

Emakume pilotariak elkarte berri batean batu dira. Inoren eskuetan utzi beharrean, euren errealtatea eurek kudeatzea eta erregulatzea dute helburu. Amaia Araiztegi mallabitarra elkarte osatzen duten 80 pilotarietako bat da

duak telebistan emateak aldea markatzen du. Baina, batzuetan, “zenbat neska hasi zareten pilotan!” eta antzerakoak entzuten ditudanean grazia egiten dit. Sekula ere ibili ez bagina lez. Emakumeok beti ibili gara pilotan. Ez da gauza berria. Ni lau urte nituenetik nabil frontoian, esku pilotan edo paleta goman. Eta nire aurretik makina bat aritu dira, eta eurretako batzuek oraindino ere jarraitzen dute.

“**Esku pilotaren kasuan, enpresa pribatu mordoa agertu dira eta negozio itzela egiten ari dira gure kontura**”

Esku pilotan ez ezik paleta goman ere ibilitakoa zara, urte askoan. Modalitate horretan, sentitu duzue esku pilotan izan den hazkundea? Paletan ez dut horrelakorik bizi izan. Baina, egia esan, azken urteetan neska gazte dezente hasi dira palan jokatzeko Mallabian. Umea nintzenean lau katu ginen eta, gerora, 15 bat neska ibili dira. *Boom* momentu bat izan zen. Sozialki gertatu den gorakada hori pilotarien baldintzetan ez dela maila berean islatu diozue. Gaur egun zeintzuk dira desoreka eta beharri-zanik handienak? Behinena oinarri bat sortzea da: materiala, egutegi bat... hamaika

kontu daude. Gauza txikietatik hasita, denei pala eta kamiseta bana emateko aukera izatea, esaterako. Orain, azpian sarerik ez duen soka gaineen balantzan gabiltza. Alderdi ekonomikoan, esaterako, zein da gaur egungo egoera? Partidu asko dohainik jokatzeko ditugu. Kobratzen dugunetan ez dago oinarri finkorik: orain 80 euro, orain 20... Herri bakoitzak ahal duena ematen duela esaten dute. ‘Ahal duena’ horrek grazia egiten dit, zeren eta, beharbada, gure partiduen osteko kontzertua Gatiburena izango da. Ahal denaren eta gura denaren artean tarte bat dago. Denboraldiko pilota egutegiari dagozkion kezkak ere plazaratu dituzue. Zeintzuk urrats eman daitezke arlo horretan?

Gauza asko egin daitezke, baina, esaterako, pilotarien agendak hobeto kudeatu daitezke. Paleta goman badaude pilotariak urtean txapelketa bat bakarrik jokatzeko dutenak. Zergatik gertatzen da hori? Zergatik federazioek ez dituzte txapelketa gehiago antolatzen? Eurei galde-tuta, diru falta da betiko aitzakia. Baina ez da federazioen kontua bakarrik. Kirol elkarteek ere batzuetan dena ipintzeko eskatzen diete federazioei, eta hori ez da posible. Entrenamenduak, pilotarien prestakuntza eta teknifikazioa. Zein da egoera alderdi horretan? Egon izan dira teknifikazio entrenatzaileak. Maitane Aburuzagaz eta Maider Mendizabalegaz ibili

izan naiz. Eurak, hein handi batean, pilota maite zutelako aritu ziren. Baina denak muga bat du eta utzi egin zuten. Urte bi daramatzat entrenatzaile barik eta neure kontura entrenatzen. Pilotarien maila hobetzeko, distira berri bat lortzeko, beharrezkoak dira teknifikazio arloko entrenatzaileak eta prestatzaile fisikoak. Badakit ez dela erraza dena lortzea. Denok gure partetik gehitxoago jarrita aurrerapausoak ematea da kontua.

“**Badakit ez dela erraza dena lortzea. Denok gure partetik jarrita aurrerapausoak ematea da gakoa**”

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Emakumeen pilotak oihartzuna irabazi du azken lau-bost urteetan. Batez ere, esku pilotan izan da gorakada, enpresa pribatuek antolatutako txapelketekin. Baina sozialki gertatu den gorakada hori ez da proportzio berean islatu pilotarien lanerako baldintzetan. Egoeragaz nekatuta, aginte makila hartzea erabaki eta Emakume Pilotarien Elkarte sortu dute.

Gaur egun enpresa pribatuen eskuetan daude txapelketak? Esku pilotaren kasuan, enpresa pribatu mordoa agertu da azkenal-

dian. Enpresa horiek negozio itzela egiten ari dira gure kontura. Diruaren usainera hurreratu dira. Eta gu, hortxe gaude, ahaztuta, betiko lez. Ez dirurik eta ez baliabiderik. Bitartean, eurek dominatxoak eskegitzen dituzte paparrean, emakumeak plazara atera dituztela-eta. Badakite gaur egun dagoen dominarik preziatuena berdintasunarena dela eta aprobetxatu egiten dute. Telebistan ikusten ez den errealtate bat dago atzetik?

Bai. Master Cup eta halako txapelketak hasi direnetik, eta horiei eskerrak, asko bisibilizatu da emakumeen pilota. Hori egia da. Parti-



baina horregaz ez da sakoneko arazoa konpontzen.

**Arazo horiek eta beste batzuk kudeatzeko helburuagaz sortu duzue Emakume Pilotarien Elkartea. Apurka su txikitan kozinatzen ibili zareten ideia bat izan da?**

Betidanik gura izan dugun zerbait da. Denbora luzez elkarri esan

“

**Federazioekin elkarlanean aritu gura dugu. Ez goaz euren kontra edo eurei ezer kentzen”**

—

izan diogu: “Egunen batean zeozer egin beharko dugu, ba”. Egoeragaz gogaituta geunden. Orain gorpuztu den nahi hori aspaldikoa da. Patricia Espinar pilotaria hasi zen kontu hau mugitzen, Avento kirol elkarteko Ainhoa Azurmendiren aholkularitzagaz. Emakume pilotarien egoera okerrera zihoala ikusita, Azurmendik aholkatu zuen bazela sasoia aginte makila hartzeko, gurea geuk kudeatzen hasteko. Orain urte eta erdi inguru izan zen hori.

**Zuk zeuk nola jakin zenuen asmoaren berri?**

Aldagela batzuetan izan zen, partidu baten ondoren. Patri Espinar eta Maider Mendizabal pilotariek esan zidaten berotuta zeudela kontu horregaz, eta nire iritzia eskatu zuten. “Dudarik barik, aurrera!”, erantzun nien. Beste pilotari batzuegana ere joan ziren iritzi eske. Azken batean, ezin genuen honenegaz aurrera egin lau katu izanda. Edo denak batzen ginen edo ez gindoazen inora. Argi geneukan hori. Azkenean, 80 bat batu gara. Kopuru itzela da!

**Zeintzuk dira elkartearen helburu nagusiak?**

Labur esanda, emakumeen pilota bultzatzea, gestionatzea, erregulatzea eta egituratzea.

**Elkarte berria enpresen aurrean presioa egiteko bilgune bat bakarrik izango da ala txapelketak antolatzen zein egutegiak osatzen ere lan egingo duzue?**

Federazioekin elkarlanean, txapelketa batzuk geuk antolatuko ditugu, eta denon artean denontzat egokia den egutegi bat diseinatzen ahaleginduko gara. Guk antolatuko duguna elite mailako txapelketa izango da seguruenik, aginte makila hartuta, eta federazioagaz elkarlanean bada, askoz ere hobeto. Badakit lan handia duguna aurretik. Egiten ari garen lanaren benetako emaitzak hemendik hiru edo lau urtera ikusiko ditugu, zorte apur batez.

**Hordagoa bota duzuenetik begirada okerrik sentitu duzue?**

Batzuk poztu egin dira, beste batzuk zer gertatuko den zain daude eta, nire ustez, beste batzuek oraindino ez dute sinesten abentura hau ondo irtengo denik. Esango nuke ez dutela asimilatu iraultza benetan datorrela. Batek baino gehiagok susto itzela hartu behar dute hemendik denporatxo batera.

**Federazioek ondo hartu dute zuen erabakia?**

Orokorrean, bai. Federazioekin elkarlanean aritu gura dugu. Ez goaz euren kontra edo eurei ezer kentzen. Bidelagun gura ditugu. Seguruenik, enpresa pribatuekin gatzaxoa izango da hartu-eman horiek bideratzea.

**Dirua behar da egitura sendo bat sortzeko. Zelan lortu daiteke?**

Gutxiengo kopuru bat, martxan hasteko adinakoa, gugandik etorriko da. Etorkizunera begira, gugaz lan egin gura dutenak bilatzea izango da helburua. Badugu



Zumarragako pilotalekua beteta, aurtengo martxoan jokaturako Master Cup txapelketako finalean.



Paleta goman eta esku pilotan, modalitate bietan dihardu Amaia Araiztegik gaur egun.

“

**Badakigu gatxa izango dena, behin baino gehiagotan jausiko garena, baina prest gaude bide hori egiteko”**

—

ibilbide orri bat. Badakigu gatxa izango dena, behin baino gehiagotan jausiko garena, baina prest gaude bide hori egiteko. **Zeintzuk dira zuen ibilbide orriko hurrengo urratsak?**

Kontu berria da guretzat. Mila bide eta zalentza daude aurretik, eta gure artean apurka-apurka erabaki bateratuak hartzen joan behar dugu. Eta bagabiltza horretan. Udaletxeetara ere jo dugu, pilota jaialdiak lotu guran. Hasierako hartu-emanak dira, batak zer eman eta besteak zer eskaini dezakeen jakiteko. Oraingoz jarrerara ona sumatu dugu.

**Pilota eskolek zer funtzio dute zuen egituran?**

Bidelagun gura ditugu. Martxan jarri duguna ondo badoa, pilotari

gazteak etorriko dira eta gazteak hortik datoz, pilota eskoletatik.

**Zu paleta goman eta esku pilotan, bietan zabilta. Zein modalitatetan sentitzen zara gusturen?**

Esku pilota da nire modalitate kutuna. Umetatik 14 urtera arte esku pilotan ibili nintzen. Adin horretatik aurrera ezin izan nuen jarraitu, emakumeetan ez zegoelako oinarri horretarako. Beraz, paleta gomara aldatu nintzen. Gerora, 18 bat urte gaur berriro hasi nintzen esku pilotan, eta gaur egun gusturabil.







Gobernu taldea osatzen duten zinegotziak eta alkatea, asteon eginiko batzarrean.

## Durango Udalak 325.000 euro inbertituko ditu auzoetan, gobernuak iragarritako 15 neurrien barruan

Aramotzen jolasgunea birdefinituko dute auzotarrekin, San Fauston taberna zabalduko dute eta Kapitanena baserrian obrak hasiko dituzte auzoko ekintzetan erabili ahal izateko

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak osatutako gobernu taldeak datozen sei hileetan martxan ipiniko dituen 15 neurri iragarri ditu, eta horien artean nabarmenezkoa da 325.000 euro inbertituko dituela auzoetan hobekuntzak egiteko. Aramotzen jolasgunea birdefinituko dute auzotarrekin batera. San Fauston pilotalekuko taberna berri-  
tu eta zabalduko dute, eta Kapitanena baserrian obrak hasiko dituzte auzoko ekintzetarako erabili ahal izateko. Alde Zaharrean, karkabak hustu eta garbitu egingo dituzte.

Espazio publikoen atalean, aipagarria da udazkenetik aurrera Landako Gunea herritarrentzat zabalduko dutela, libre dagoen egunetan. Beraz, eguneroko aisialdira-

ko aterpe handi bat bihurtuko da. Herriko eragileekin batuko dira eta ekintzen egutegi bat landuko dute.

Legealdi honetako proiektu esanguratsu bat merkatu plazaren eraberritzea izango da; gober-

**Aipagarria da udazkenetik aurrera Landako Gunea herritarrentzat zabalduko dutela, libre dagoenetan**

**Merkatuko itoginak eta hormak konpontzeko eta itxura berri bat emateko obrak hasita daude**

nuak datozen hileetan hasi gura du proiektua garatzen, eta baserri-tarren mahaia ere berraktibatuko du plaza dinamizatzeko helburuz. Gaiagaz lotuta, merkatuko itoginak eta hormak konpontzeko eta itxura berri bat emateko obrak hasita daude dagoeneko, eta irail amaierarako bukatzea aurreikusi dute.

Bestelako neurrien artean, udaleko ordezkariekin batzartzeko aukera, barne ikuskaritza egitea, galdeketa antolatzea, zebra-bide berriak sortzea, txakurrentzako guneak atontzea eta aire kalitateari buruz foro bat eratzea daude.

**Geu Be, Pinondo Etxera**

Iragarritako 15 neurrietako batzuk martxan jarri ahal izateko, diru

partidak onartu zituzten martitzeneko bilkuran, tartean auzoetako inbertsioetarako. Gainera, eskole-tako obretarako, Ezkurdiko jolasgunea konpontzeko eta Pinondo Etxean aldaketak egiteko partidak ere onartu zituzten. Eraikin hori irisgarriago egingo dute, eta Geu Be elkarteak aurrerantzean bere egoitza hor edukitzea da helburua.

**Geu Bek aspalditik egin izan du Garai jauregitik beste lokal batera mugitzeko eskaera**

Geu Bek aspalditik egin izan du Garai jauregitik beste lokal batera mugitzeko eskaera, Carmen Gerrikagoitia elkarteak presidentek azaldu duenez. Proiektuak hainbat hile iraungo du leku aldaketa egin orduko.

Inbertsioek EAJren eta PSE-EEren babesak jaso zuten. Mireia Elko-roiribe jeltzalearen iritziz, "proiektu garrantzitsua" dira durangarrentzat. Baina batzuk aurreko legealditik datozela gogoratu zuten berak eta Jesica Ruizek. EH Bilduko Iker Urkizaren esanetan, "ordua zen martxan ipintzeko".

## Plan Orokor berria abiatzea onartu dute aho batez, "biharko Durango" definitzeko

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Datozen urteetan Durangoren antolaketa urbanistikoa zehaztuko duen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra abiatzea onartu du udalbatzak, aho batez. EH Bilduk dio "legealdiko proiektu garrantzitsu bat" izango dela. Azken plana 2005ean egin zenez, berria 2013an lantzea egokitzen zela gogoratu du Herriaren Eskubideak, eta gaineratu du "herritarren parte-hartzea" giltzarria izango dela. EAJk ahalik eta adostasunik zabalena egon dadin eskatu du, "hala udalean nola kalean", eta PSE-EEK, gaurko begiekin barik, "biharko begiekin" begiratzen hastea eskatu du. Asteon hasitako prozesua hiruzpalau urtean garatuko dela aurreikusten dute.

## San Antonio eskolak 1.650 euroko dohaintza egin dio APNABI elkarteari

**DURANGO • ARITZ MALDONADO**

San Antonio ikastetxeko guraso elkarteak 1.650 euroko balioa duen dohaintza egin dio APNABI elkarteari. Joan den maiatzaren elkartasun jaia ospatu zuten ikastetxean, eta bertan batutako dirua haurren zentzumenen estimulazioa lantzeko materiala erosteko baliatu dute. Jaia elkarlanean antolatu zuten San Antonio ikastetxeko guraso elkarteak, ikastetxeak berak eta Eirband eta Astoturfer musika taldeek.

Autismoaren Espektroko Nahastea (AEN) dutenen Bizkaiko familiek osatzen dute APNABI. 1970eko hamarkadan sortu zen elkartea. Egun, 1.000 familia baino gehiagok eta 220 profesionalen osatuta dago.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2019ko uztailaren 19a  
17. urtea - 772. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri, Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**EUSKO JAURLARITZA**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



# "Madalenako jaiak ospatuko ditugu orain, baina, aurrerantzean, auzoaren eta auzotarren beharrianak asetzeko lan egingo dugu"

Madalena auzoari "dinamismoa" emateko sortu dute Auzo Alai elkarte. Ahalegin berezia egingo dute auzotar edadetuenei laguntzeko

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Auzoko jaiak ospatuta hasiko du bere ibilbidea Madalenako 'Auzo alai' elkarteak. "Halaxe tokatu da. Orain jaiak ospatzea dagokigu, baina irailetik aurrera auzoaren eta auzotarren beharrianak asetzeko lan egingo dugu". Amaia Palacio da elkarteko lehendakaria, eta ibilbidea "ilusio handiz" hasi dutela aitortu du.

Berria da Auzo Alai. Madalenako hainbat auzotarrek iragan martxoan sortu zuten elkarte. 14 dira bilkuretan inplikaturik dauden auzotarrak, baina atzean duten egitura handiagoa da. 70 bazkide baino gehiago dira. Palaciogaz batera, Kontxi Mikolta eta Anuska Mikolta ahizpak dira elkartearen parte hartzen duten beste auzotar



Anuska Mikoltak, Amaia Palaciok eta Kontxi Mikoltak Ilusioz ekin diote ibilbideari.

**"Zortekoak gara, Madalenako auzoa heterogeneoa eta inplikaturik baita"**

**Bilkuretan 14 kidek parte hartzen duten arren, 70 auzotar baino gehiago daude elkartearen**

bi. "Zortekoak gara, auzo heterogeneoa eta inplikaturik baita gurea", diote auzokideek. Iragarri dutenez, Madalena auzoari "dinamismoa" ematea dute helburu, eta arreta berezia ipiniko dute edadetuenei-

gan. "Gaur egun, asko berba egiten da ume eta gaztetxoei buruz, baina adinduenak baztertu samar ote dauden irudipena dugu", hausnartu du Palaciok. "Gure elkartearen helbururik garrantzitsuenetariko bat, hain zuzen, horixe izango da: auzoko adinduenei eguneroko kontuekin laguntzea", dio.

"Faktura, tramitazio, telefono-arazo eta tankera horretako bete-beharrekin lagundu gura diegu", zehaztu du Kontxi Mikoltak. "Baita Durangon oro har antolatzen diren aktibitateetan inplikatzeko eta udalagaz zubi-lana egiten ere".

Momentuz, Palentinoan egoki-

**Auzotar edadetuenei faktura, tramitazio eta eguneroko lanekin lagunduko diete**

**"Madalenako jaiak sona zuten orain hamarkada gutxi arte, eta jaiak biziberri gura ditugu"**

tutako gela batean ari dira bilkurak egiten, baina, laster, Durangoko udal euskaltegiko lokal batera lekualdatuko dira. Dena dela, etorki-

zun batean, elkarteak lokal propio bat eduki gura luke.

**Jaia egiteko lau egun**

Gaurtik hasita astelehenera arte, jaiak ospatuko dituzte auzoan. Lau egun berezi hauek baliatu gura dituzte, bide batez, jaiak "biziberri-tzeko". Anuska Mikoltak dioenez, "Madalenako jaiak, orain hamarkada gutxira arte, bazuten bere sona. Garai bateko indar hura berreskuratu gura dugu".

Egitarauko ekintza guztiak Madalenako ermitaren inguruan egingo dituzte. Auzotarrak direnak zein ez direnak deitu dituzte bertan

parte hartzera, eta, egingo dituzten ekintzen artean, gaur 20:30ean egingo den tortilla dastaketa nabarmendu dute. "Aktibitate parte-hartzailea izango da. Auzotarrek etxean egindako tortillak ekarriko dituzte, ondoren, datozen guztien artean partekatzeke", esan dute.

Amaia Palaciok, gainera, Madalenak duen auzo-izaera goraiatu du: "Urte luzez trenbideak mugatutako auzoa izan da gurea. Horrek herri txiki baten antzeko izaera eman digu. Txikitatik egin dugu bizimodua auzoan, eta horrek, ez dakit, halako harrotasun puntu bat ematen du".

## Durangoko Udalak pediatria zerbitzuari buruz batzartzeko eskaera egingo dio Osakidetza

Aurreko legegintzaldian ez bezala, udalbatzak onartu egin du plataformaren mozioa

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

Aurreko legegintzaldian ez bezala, udalbatzak Pediatria 24H plataformaren mozioa onartu zuen martitzenean, EH Bilduren eta Herriaren Eskubidearen aldeko botoekin eta EAJ-ren eta PSE-EEren abstentzioagaz. Ondorioz, udalak Osakidetzagaz, Osasun Sailagaz eta eskualdeko udalekin batera batzartzeko eskaera egingo du 24 orduko pediatria zerbitzua aztertzeke, etabaita an-

bulantzia medikalizatua eta bihotz-biriken erreanimazio zerbitzua ipintzeko ere.

EAJk zuzenketa bat aurkeztu zien alderdiei eta plataformari, eta prentsara ere bidali zuen. Besteak

**EAJk ez zuen adostasun politikoa lortu, eta erretiratu egin zuen bere zuzenketa**

beste, pediatria zerbitzua 20:00ak artekoa izatea proposatu zuen, "bideragarriago" ikusten duelako. Baina, adostasun politikoa lortu ez zuenez, erretiratu egin zuen zuzenketa. Izan ere, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak bat egin zuten plataformaren eskariekin eta horiek Osakidetzagaz aztertzeagaz. PSE-EE abstenitu egin zen. Euren ustez, arazo berdina dago erkidego osoan, eta ez dute "populista" izan gura.



Pediatria 24H plataforma iaz sortu zen, herritar askoren babespean.



ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Soroslea da Jokin Urkia durangarra; eta gimnasioko monitorea Roberto Caballero abadiñarra. Ekainetik hona, mobilizazioak egiten dabil-tza Astolako kiroldegian, helburu argi batez: Bizkaiko kiroldegi eta kirol-zelaien lan hitzarmena eguneratu gura dute. Oraingo, ez dago akordiorik sindikatuen eta CEBEK Bizkaiko Enpresarien Konfederazioaren artean, eta langileek greba egiten segituko dutela aurreratu dute. Egoerak, Abadiñoako kasuan, kiroldegiko 22 langileri, 2.200 erabiltzaile baino gehiagori, Emtesport enpresari eta udalari eragiten die.

**Sindikatu eta enpresari arteko azken bilera astelehen honetan egin da eta akordiorik barik amaitu da. Nola dago egoera?**

**Jokin Urkia:** Ez da inolako hurbilketarik egon. Grebak ekainean hasi genituen, baina dezente lehenagokoak dira sindikatuen eta enpresari arteko tirabirak. 2018ko urrian izan zen alde bien arteko lehenengo negoziatzioa, eta 14 bilkura egin dira ordutik hona. Huts egin dute denek, ez baita adostasunik egon. Egoera erabat geldirik dago eta soka tenkatzen ari da. Lan hitzarmena gaurkotzea da eskatzen duguna. **Bizkaiko kiroldegietan indarrean egoniko azken lan hitzarmena 2015etik 2017ra bitartekoa da. Zeintzuk dira zuen eskakizunak?**

**J.U.:** Kirolaren sektorea asko profesionalizatu da azken urteotan. Horrek zaharkituta utzi du orain arte indarrean egoniko lan hitzarmena, eta hori gaurkotu beharra dago. Esate baterako, soldatak eta lan baldintzak eguneratu behar dira.

**Roberto Caballero:** Arazoetariko bat soldatena da, baina hori baino inportanteagoa da gure kategoria profesionalekin gertatzen dena. Oso prekarioak dira. Adibidez, badago kategoria bat "monitorea" lez identifikatzen dena. Bertan nornahi sartu liteke. Udalekuetako begirale bat, edadetuekin kirol jarduera bat antolatzen duen begirale bat zein bezero bati kirol jarraipen pertsonalizatua egiten

## “Kirolaren sektorea asko profesionalizatu da azken urteotan, eta orain arteko lan hitzarmena zaharkituta gelditu da”

Jokin Urkia eta Roberto Caballero Astolako kiroldegiko langileak dira



Jokin Urkiak (ezkerrean) eta Roberto Caballerok (eskuman) iragarri dute egun osoko lanuztera deituta dagoela martitzenerako, hilak 23.

dion monitorea bat. Lan guztiak sartzen dira kategoria berean, nahiz eta bistakoa den oso lan desberdinak direla.

**J.U.:** Kiroldegiko harreraren lan egiten dutenen kasua ere esanguratsua da. "Txartel-saltzaile" kategorian daude eta horren arabera soldata dute. Haien lana, teorian, txartela inprimatzera, takillak kudeatzera... mugatu beharko litzateke, baina, egia esan, administraritza lan oso bat egiten dute. **Egiten dituzuen lanetarako batzuk islatu barik al daude hitzarmenean?** **R.C.:** Hitzarmenak ez ditu gure betebeharrak definitzen. Ez dakigu zer eskatu ahal zaigun.

**J.U.:** Spinning klaseak dira ikusezintasun horren adibide. Klaseak

prestatu ahal izateko, musika entzun eta bilatu behar da. Eta langileak ezin du hori guztia etxean egin, bere denbora libre baliatuta.

**R.C.:** Hori da hitzarmen berriak islatu beharko lukeen eginkizunetarikoa bat: lanaldi osoan dagoen langileak urtean 16 ordu izan ditzala klaseak prestatzeko.

**Bizkai osoko auzia den arren, Abadiñori ere eragiten dio gatazkak. Zein harreman duzue udalagaz?**

**J.U.:** Udalarenak dira instalazioak. Kiroldegiko erabiltzaileak Abadiñoakoak dira. Beraz, udalak ere badu erantzukizun zati bat. Dena dela, borondatea agertu digute egoera konpontzeko. Udaltzatzaiko hiru indar politikoak kezka-

tuta gerturatu dira gugana eta ikusi dugu badutela gauzak ondo egiteko borondatea. Oso positiboki baloratzen dugu hori.

**Aurrerantzean zein bide hartuko dute negoziatzioek eta grebek?**

**J.U.:** Irailaren 24an izango da patronalaren eta sindikatuen arteko hurrengo bilera. Bitartean, mobilizazioek segitu egingo dute. Hemendik aurrera, geldialdiak lau ordukoak izango dira. Gaur (barikua) 8:30etik 12:30era egingo dugu. Martitzenean, oster, egun osoa izango da. Lehenengo aldia da sektore honetan lau sindikatu nagusiak (ELA, LAB, CCOO, UGT) batera mugitzen direla, eta auzia orokorra dela erakusten du horrek.

## Pilotalekuko obra adjudikatu, eta irailerako hasia gura dute Garain

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Pilotalekua albotik zarratze-ko proiektuak beste pauso bat eman du, joan zen martitzene-ko osoko bilkuran obra adjudikatu eta gero. Cumenorte enpresak egingo ditu lanak, 115.000 euroko aurrekontuagaz. Hori finantzatzeko, Aldundiko Azpiegitura Sailak 25.000 euroko diru-laguntza eman dio udalari.

Obrak abuztu amaieran edo irail hasieran hasia itxaroten dute udal arduradunek, eta Gabon aurretik amaituta izatea. Erramun Osa alkatearen esanetan, urtean zehar herriko ekin-tzak antolatze eta erabilera handiagoa emateko helburua du egitasmoak, batez ere eguraldi txarra egoten denean kondizio hobekien eskaintzeko.

## Satxibuko udalekueetan dabilzan gazteek birziklatzearen aldeko murla margotu dute

MALLABIA • J.D.

Satxibu aisialdi taldeko udaleku finkoetan dabilzan gazteek 'Herria zaindu, birziklatu' dioen murla marraztu dute aste honetan Intxaurti inguruan. Aurten, birziklapenaren gaia lantzen ari dira udalekueetan, gaztetxoek eurek proposatuta. Mural horren ondoan beste bat dago, 'Ongi etorri errefuxiatuak' dioena. Mural hori Satxibuko Zapatuero aisialdi eskaintzaren barruko gazteek marraztutakoa da.

## Arantza eta Pantxoren kontzertua abuztuaren 10ean, San Lorentzo auzoan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ekain amaieran San Pedro eta Santa Isabel jaiak ospatu eta gero, orain San Lorentzo auzoko jaien txanda da. Abuztuaren 9an Donien Atxa jasota emango diote hasiera auzoko jaiak, eta abuztuaren 11ra bitartean hainbat ekintza aurkituko dituzte bertaratzeko direnak.

Abuztuaren 10ean, esate-rako, Arantza eta Pantxoren kontzertuaz gozatzeko aukera egongo da. 18:30ean hasiko da musika emanaldia.

## Igerilekueko greben aurrean, alderdi politikoek ez dute adostasunik lortu

EH Bilduk mozioa aurkeztu zuen uztailako osoko bilkuran

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Bizkaiko kiroldegietako greba Abadiñoako Udalera ere heldu da.

Erabiltzaileak konpentsatzea lehentasuna dela dio udalak, eta hori nola egin aztertzen dabil.

Langileen greba eskubidea errespetatzen duela gaineratu du, eta prest dagoela patronalaren eta sindikatuen artean bitartekaritza lana errazteko. EH Bilduk, oster, mozioa aurkeztu zuen. Bertan, kalteordainak Emtesport enpresari emendatzea eskatzen zitzaion. EAJk eta Aik aurka bozkatu zuten. Gatazkaren bestelako irakurketa egiten duela esan du Mikel Garaiazabal alkateak.

### Astolako aldagelak

Bestalde, koalizio subiranistak salatu zuen Astolako futbol zelaiko aldagelako obrak ez direla denboraldi hasierarako egingo: "Udalak atzerapen handiagaz egin du obren lehiaketarako deialdia, eta ez da enpresarik aurkeztu, gainera". Futbol denboraldia "arazorik barik" hasteko, futbolariak kiroldegiko aldagelak erabili ote ditzaket aztertzen ari da udala.



# Trenbide sarea hobetzeko lanetan, Eusko Jaurlaritzak Zornotzako geralekua eraberrituko du

Gaur egungo markesina eta herritarren arretarako etxetxea kendu eta azpiegitura berriak egingo dituzte



San Pedro kalearen ondoan dago eraberrituko duten Zornotzako geralekua.

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**  
Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Euskal Trenbide Sarea erakunde publikoaren bitartez, 3,5 milioi euro inbertituko ditu Bermeo eta

Zornotza arteko trenbide sarea hobetzen. Askotariko lanen artean, Zornotzako geralekua —San Pedro kalearen ondoan dagoena— goitik behera eraberrituko dute, ohar batean jakinarazi dutenez.

**Gaur egungo zubia zein geralekurako oinezkoen sarrera handitu egingo dituzte, besteak beste**

Eraberritze "integrala" izango dela jakinarazi dute. Horrela, gaur egungo markesina eta herritarren arretarako etxetxea kenduko dituzte, eta toki horretan azpiegitura berri bat eraikiko dute.

Horrez gainera, gaur egungo zubia zein geralekurako oinezkoen sarrera handitu egingo dituzte, oinezkoen joan-etorriak errazteko. Azkenik, trenbide ondoko Gari-tondo errekaaren eta trenbidearen artean hesi akustikoak jarriko dituzte.

Zornotzako geralekua berri-tzeko lanek hamalau hileko exekuzio epea izango dute eta milioi bat euro inguruko inbertsioa eskatuko dute, Eusko Jaurlaritzaren esanetan.

**Lanek hamalau hileko exekuzio epea izango dute, eta milioi bat euro inguruko inbertsioa**

**Gainerako lanak**  
Trenbide sareko gainerako lanen artean, Gernikan egingo dutena da garrantzitsuenak. Geraleku nagusiko estalpea berriztuko dute, hezetasuna kentzeko. Horrez gainera, Lurgorriko eta institutu inguruko geralekuetan hainbat lan egingo dituzte. Andenetara igotzeko arrapalak berritu eta markesinak konponduko dituzte. Beste lan batzuen artean, argiztapena ere hobetuko dute.



## CLA Coupe Berria. Zeuk zehazten dituzu arauak.



Batzuetan arauak aldatu behar dituzu ametsak betetzeko. Horixe gertatzen da CLA Coupe Berria gidatzean. Gozatu kirol-diseinua, ahotsaren bidez aktibatzen den MBUX izeneko adimen artifizial sistema eta izaera paregabeko diseinu zoragarria. Gainontzekoek bezala ala zeuk nahi bezala bizi nahi duzu?

### Aguinaga

Concesionario Oficial Mercedes-Benz  
C/ Retuerto, 38.  
48903 BARAKALDO.  
Tel.: 94 497 00 74.  
www.aguinaga.mercedes-benz.es

Parque Empresarial Boroa, Parc. 2A-3.  
48340 AMOREBIETA.  
Tel.: 94 630 17 47.

C/ Botica Vieja, s/n.  
48014 BILBAO (DEUSTO).  
Tel.: 94 447 08 40.

Avda. Iparraguirre, 90.  
48940 LEIOA.  
Tel.: 94 463 11 75.



# Emakumeen mugimenduak jaurtiko du Ferixa Nausikoetako txupinazoa

Autodefentsa Feministako kideek txupinazo "berezia" jaurtiko dutela aurreratu dute jaien aurkezpenean; Buruaga alkateak jaien antolaketa parte-hartzailea nabarmendu du



Txupinerak, udal ordezkariak, ANBOTOko zuzendaria eta kartelaren egilea jai egitarauaren aurkezpenean.

## ELORRIO • JONE GUENETXEA

Elorrioko emakumeen mugimenduaren izenean Autodefentsa Feminista taldeko kideak izango dira txupinazoaren arduradunak Ferixa Nausikoetan. Abuztuaren 31n jaurtiko dute, herriko plazan. Jaien aurkezpenean azaldu dutenez, ez da ohiko txupinazoa izango. "Historian zehar isilarazitako emakumeen ahotsa izan gura dugu, baita gaur egun dauden emakumeena ere. Adin, sexu-aukera eta jatorri askotako emakumeen jaiak direla aldarrikatzen dugu, eta jai parekideak izan behar direla uste dugu. Eskubidea dugu etxera seguru joateko", azaldu dute Itziar Urizar-

barrena eta Haizea Lazkano Auto-defentsa Feminista taldeko kideek.

### Elorrioko aurtengo jaietako nobedadeetarikoa bat gaztegunea izango da

Bestalde, udalak, jai egitarauagaz batera, erasoren bat jasanez gero eskura dauden telefono zenbakiak aldean eramateko txartelak banatuko dituela azaldu du Idoia Buruaga alkateak.

Aurtengo jaietako nobedadeetarikoa bat gaztegunea izango da.

Tailerrak, musika eta beste hainbat ekintza antolatuko dituzte 11tik 15 urtera arteko gazteei zuzenduta. Ekitaldi hauek Aldapebeitian eta plazan antolatuko dituzte, iluntze aldean. Gaztegunea "apustu sendoa" izango dela azaldu du Julene Lazkano zinegotziak.

Jaiek 166.000 euroko aurrekontua izango dute, iaz baino %10 gehiago. 65.000 euro animaziora eta ikuskizunetara bideratu dituzte.

Bestalde, Mikel Askasibarrek irabazi du jaietako kartel lehiaketa. Jone Guenetxea ANBOTO astekariko zuzendariak 500 euroko saria eman dio.

# Oposizioko zinegotzi bat lanaldi erdian arituko da, lehenengoz, Elorrioko Udalean

Begoña Colomo EAJko zinegotziaren liberazioak polemika piztu du Elorrioko Udalean; %50ean arituko da udalean

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Udaleko funtzionamenduari buruzko erabakiak hartzen jarraitzen dute Elorrioren. Asteon egin den osoko bilkuran, Begoña Colomo EAJko zinegotzia lanaldi erdian aritzea onartu dute. "Zinegotzi zarenean konturatzen zara lan asko dagoela egiteko, bai gobernuan, bai oposizioan, eta,

### Aurreko legealdian lez, Idoia Buruaga alkatea %66an arituko da, 31.197 euroko soldatagaz

horregatik, zinegotzi bat %60an udalerako lanean egotea proposatu dugu", adierazi du Joseba Muxika EAJko bozeramaileak. Gobernu taldeak, ostera, Eudelen irizpideei jarraituz, Colomo %50ean aritzea proposatu du. "Liberazio hau ez zaigu koherentea iruditzen, eta ez gaude ados EAJko zinegotzi bat

lanaldi erdian egoteaz. Batez ere, azken lau urteotan egin duzuen oposizioa kontuan hartuta; hau larregikoa da", esan du Idoia Buruaga alkateak. Hala ere, "oposizio on bat egin" eta proposamenak egiteko bada, liberazioa "ondo etorria" izango dela adierazi du alkateak.

Colomoren liberazioak polemika piztu du, eta Podemoseko Agustin Fernandezek esan du EAJk "nahikoa" lukeela %25agaz, eta, gura izanez gero, alderdiak ordaindu diezaiola %50era artekoa. "Orain arte ez duzue ezertxo ere egin, gauza guztiei ezezkoa eman, besterik ez. Egia da aukera duzuela eskaria egiteko, baina elorriarren diruagaz horrela aritzea ere!", gaineratu du Fernandezek.

Bestalde, aurreko legealdian lez, Idoia Buruaga alkatea %66an arituko da, 31.197 euroko soldatagaz. Maria Herrero alkateordea, ostera, lanaldi osoan arituko da udalean, eta 39.366 euro jasoko ditu.

## Peñagarikano eta Zubeldia bertsolariak Argiñetako jaietan

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abuztuaren 2tik 5era bitartean, Argiñetako jaiak ospatuko dituzte Elorrioren. Afari herrikoia gaz eta Eingo taldearen erromeriagaz emango diote hasiera jaiiei. Hurrengo egunean, abuztuaren 3an,

kofradi bazkaria, bolo txapelketa eta Mugi Panderoa taldearen eskutik erromeria egongo dira, besteak beste.

Bestalde, hilaren 4an, bertso kantu afaria egongo da, Angel Mari Peñagarikano eta Iker Zubeldia bertsolariekin. Ondoren, Misera-bleak taldeak girotuko du gaua.

Abuztuaren 5ean emango diote amaiera jaiiei, Mariskal Djaren saioagaz, besteak beste.

# Otxandioko jaien barruan, urteroko omenaldia egingo diete 1936ko bonbardaketan hil zirenei

Gerra zibileko bonbardaketa bizi izan zutenak testigu direla, herritarrek lore eskaintza egingo dute Andikona plazan, Nestor Basterretxeak egindako eskulturaren aurrean

## OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Eguazteneko txupinazoaren ondoren, abian dira Otxandioko Santamaña jaiak. Askotariko ekitaldien artean, urtero errepikatzen den bat izango da hunkigarriena: gerra zibileko bonbardaketan hildakoak oroitu dituzte domekan, Andikona plazan.

Ekitaldia 13:00etan hasiko da eta ordu erdi inguru iraungo du. Bonbardaketa bizi izan zutenak

testigu direla, herritarrek lore eskaintza egingo dute Nestor Basterretxearen eskulturaren aurrean. Ondoren, txistulariek, koruak eta musika bandak bonbardaketaren inguruko abestia kantatuko dute.

### Aurtengo adierazpena eta aurreko urteetakoak jasotzen dituen liburuan sinatzeko aukera egongo da

## Andikonako Foroaren testua

Ekitaldian zehar, Andikonako Foroak adostutako idatzi bat irakurriko du Egoitz Garmendia alkateak. Ondoren, herritarrek adierazpen hori eta aurreko urteetakoak jasotzen dituen liburuan sinatu ahal izango dute, testuari euren atxikimendua erakusteko.

Azkenik, plazara igoko dira eta herritar guztiei limonada banatuko zaie.



Eguazteneko txupinazoagaz hasi zituzten Otxandioko jaiak.





**IURRETA *Tellitu-n***

*3 logelatako 6 etxebizitza*  
*2 logelatako 11 etxebizitza*  
*Garajea eta trastelekua barne*

**ZARATE ELEXPE**  
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)



# Zaldibarren Uriarte alkateordea liberatzea erabaki dute, polemikaz betetako bilkuran

Liberazioen gaiaz gainera, polemika iturri nagusi bat mahaigaineratu zen udalbatzarrean: EAJko eta PSE-EEko lau zinegotzi ez dira herrian bizi, tartean alkateordea, eta EH Bilduren ustez "zaldibartarrak dira arduradun izateko egokienak"

**ZALDIBAR • MARKEL ONAINDIA**

EAJren eta PSEren akordiorari eskerrak, Jose Luis Maiztegi jeltzalea da Zaldibarko alkatea, baina bera ez da liberatuko udaleko lanerako. Bere ordeaz, Juan Mari Uriarte alkateordea egongo da soldatapean. 44.300 euro gordin jasoko ditu urtean. Joan zen egueneko osoko bilkuran, Maiztegi azaldu zuen bera jubilatuta dagoela, eta "konforme" dagoela dietak eta kalteordainak kobratuta. Hala ere, alkate lana beteko duela berba eman zuen.

**Azpitarte: "Kanpoko zinegotziak izateak kostu ekonomiko handiagoa ekarriko die zaldibartarrei"**



Zaldibarko osoko bilkura, aurreko asteko eguenean.

Izendapen horrek EH Bilduren kritika ekarri zuen. "Zeu zara alkatea. Zeuk duzu erantzukizunik handiena", esan zion Carmen Sampedrok Maiztegiari. Aitor Lopezek gehitu zuen hauteskunde kanpaina EAJk ez zuela horretaz informatu, eta "gardentasuna" behar dela uste du.

Liberazioarenaz gainera, polemika iturri izan zen gai nagusi

bat mahaigaineratu zen osoko bilkuran. EAJko eta PSEko lau zinegotzi ez dira Zaldibarren bizi, tartean liberatu berri den Uriarte bera, eta EH Bilduren ustez "zaldibartarrak dira egokienak" arduradun izateko, Eneritz Azpitarteren esanetan. Gainera, lehenengoz kilometraje dieta kobratu dezakete kanpotik datozenek, eta

**Maiztegi: "Lehenik, utzi lana egiten, eta gero baloratu. Kontuan izan herritarren botoa jaso dutela"**

Azpitartek salatu zuen "kanpoko zinegotziak izateak zaldibarta-

rrei kostu ekonomiko handiagoa" ekarriko diela.

Maiztegi nabarmendu gura izan zuen zinegotzi horiek "lan egitera" datozela Zaldibarrera. "Lehenik eta behin, utzi lana egiten, eta gero baloratu. Gainera, kontuan izan herritarren botoa jaso dutela", erantzun zien alkateak EH Bildukoei.

**Mañariko Udalak kirolguneko ordenantza onartzeko ibilbide orria zehaztu du**

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Mañariko kirolgune berriko azpiegiturak amaituta dau-de eta orain bertako erabilera arautzea falta da. Horretarako, udalak ordenantza bat landu du eta indarrean jarri arteko pausoak eta denborak zehaztu dituzte egutegi batean. Uztailko udalbatzar batean, hasierako onarpena emango diote ordenantzari. Gero, alegazioen epea hasiko da, irailera arte. Irailean bertan, herritarren aurrean aurkeztu gura dute ordenantza, xehetasunak azaldu eta ekarpenak jasotzeko. Azkenik, irailko bigarren hamabostaldian, behin betiko onartu gura dute. Dokumentua publiko egin eta handik hilabetera sartuko litza-teke indarrean.

**Santixako jaietan txapelketa, patatak ondoen nork zuritzen dituen jakiteko**

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Uztailaren 24tik 28ra bitartean, Santixa auzoko jaiak ospatuko dituzte Atxondon. Aurten ere, azken urteotako ohiturari eutsiz, txapelketa berezia egingo dute patatak ondoen nork zuritzen dituen jakiteko. Txapelketa hau uztailaren 26an izango da, 19:00etan. Ondoren, tortillak prestatu eta afaria egingo dute. Zapatuan, ostera, paella txapelketa egingo dute, eta domekan mozerro lehiaketa, besteak beste.

**Bertsoak, dantza eta bazkaria antolatu dituzte Santixau egunerako Orozketan**

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Uztailaren 25ean Santixau eguna ospatuko dute Orozketa auzoan. 12:00etako meza nagusia amaituta, Iurretako Mikel Deuna dantza taldeak saioa eskainiko du, eta, ondoren, Eneko Abasolo 'Abarkas' eta Iratxe Ibarra bertsolariek jardungo dute. Trikitilariak girotutako auzo bazkariagaz amaituko dute eguna. Arriandiko santamañei hartuko die lekukoa Orozketak. Dantzariak eta bazkaria dituzte bihar Amezketa eskolan.

## "Berdintasunari keinu bat egin gura nion kartelagaz"

Alfonso Maciasek irabazi du Izurtzako kartel lehiaketa

**IZURTZA • JOSEBA DERTEANO**

Alfonso Macias Izurtzan bizi den durangarraren kartelak iragarriko ditu aurten Izurtzako jaiak. Kartel lehiaketara lehenengoz aurkeztu eta irabazi egin du.

Kartelean emakumezko dantzari bat ageri da, albora begira eta dantzan hasteko prest. Sormen lanak denbora eman diola onartu du. "Azken urteetan, feminismoak indarra hartu du eta berdintasunari

kein u bat egin gura nion kartelagaz. Bestalde, herrian tradizio handia dute dantzak eta dantzariak. Beraz, sormen lanean arlo biak uztartzea erabaki nuen", azaldu du. Ondoren, irudi hori hainbat edizio programatan tratatu zuen, bila zebilen efektua aurkitu arte. "Sarritan kostatu egiten da. Pazientzia izatea da gakoa", adierazi du.

**Argazkiak atera zalea**

Kartelak diseinatzen ez ezik, argazkiak ateratzen ere abila da Macias. Orain urte bi, bigarren tokian geratu zen Izurtzako jaietako argazki lehiaketan. Antzinako argazkiak zaharberritzea eta antzerki obretarako *attrezzo*-a egitea dira bere beste zaletasun bi.

**Orain urte bi, bigarren tokian geratu zen Izurtzako jaietako argazki lehiaketan**



Alfonso Macias aurtengo kartel irabazleagaz.



# "Gurasoen aldetik gero eta kezka handiagoa ikusten da eskoletan, baina jantokietan ez da aurrerapausorik egon"

Berton Bertokoa elkarteko kideek ez dute ondo ikusten Jaurilaritzaren lege aldaketa, eta sukaldeen gaian ere notiziarik barik segitzen dutela esan dute

**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**

Hiru ikasturtean lan handia egin eta gero, hazia erein baina fruiturik ikusi ez duenaren sentsazioa-gaz mintzo dira Berton Bertokoako kideak. "Gurasoen aldetik gero eta kezka handiagoa ikusten da eskoletan, baina jantokietan ez da aurrerapausorik egon", azaldu du Isa Gonzalez Zabalararako gurasoak. Atxondoko Urkiol Arkarazok dio hauteskunde aurretik "alderdi denak alde" agertu zirela, baina "oztopoak" ageri direla aurrera egiteko. Hala ere, hamabi ikastetxe publikotan batutako indarragaz, bertako eta sasoiko produktuek kontsumitzearen aldeko borrokan jarraituko dute. Aurten ere ekintza ugari egin dituzte: ekoizleei bisitak, bertako produktuen askariak, sentsibilizaziorako flashmoba...

Produktuen filosofiatik aparte, ez daude gustura catering enpresen zerbitzuagaz. "Mallabitik inzidentzia eta kexa pilo bat bidali ditugu, baina ez dute ezer ere egiten", esan du Ainhoa



Berton Bertokoa dinamikako kideak, Atxondon izandako solasaldiaren ostean.

Mallabiabarrenak. Bere ustez, "negozio interesak" daude atzean. Jaurilaritzak eginiko aldaketa bati eskerrak, datorren ikasturtetik aurrera guraso elkarrekin kudeatu ahalgo dituzte jantokiak. Besteak beste, langileak kontratatzeaz, elikagaiak lortzeaz eta segurtasu-

**Ekintza ugari egin dituzte: ekoizleei bisitak, bertako produktuen askariak, flashmoba...**

naz arduratu beharko lirateke. Baina Berton Bertokoako kideak ez daude ados formula horregaz, eta ez dute pauso hori emango. Ez dute ondo ikusten ardura osoa gurasoen eskuetan uztea, eta Hezkuntza Sailak gestionatu beharko lukeela uste dute.

**Sukaldeen berririk ez**

Beste gatazka puntu bat sukaldeen da; eskualdeko lau ikastetxetan ez dute sukalderik. Zornotzan, adibidez, sukaldea ipintzea eskatu dute oraintsu, eta erantzunaren

**Duñabeitia: "Konpromisoa hartu zuten eskolak ikustera etortzeko, baina ez da inor agertu"**

zain daude. Durangon, Zabalarra eskola da sukalderik bako bakarra, Izaskun Duñabeitia zuzendariak kontatzen duenez: "Martxoan Hezkuntza Sailekoekin egon ginen, eta konpromisoa hartu zuten eskolak ikustera etortzeko, baina ez da inor agertu. Ekainean deitu genuen, eta oso lanpetuta daudela izan zen euren erantzuna. Berbak, batzuetan, haizeak eramaten ditu". Jaurilaritzak sukaldeak ipintzeko daukan planeko hamar ikastetxetatik lau dira Durangaldekoak, eta, Alex Azpiri atxondarraren ustez, hemen eginiko lanaren erakusle da datua.



Beharginek atzo Layde Steel enpresaren aurrean eginiko elkarretaratzea.

## Metalgintzan beste bost eguneko grebara deitu dute

Sindikatuak irailaren 30a eta urriko lehen lau egunak, kasu honetan segidan, markatu dituzte mobilizaziorako

**DURANGALDEA • M.Z. / M.O.**

Metalgintzako sektorean maiztean eta ekainean eginiko protesten ondoren, beste bost eguneko grebara deitu dute uda osterako. Hain zuzen ere, irailaren 30a eta urriko lehen lau egunak markatu dituzte mobilizaziorako. Beraz, kasu honetan, greba egunak segidan izango dira. Atzo bertan, elkarretaratzea egin zuten Layde

Steel enpresaren aurrean, sindikatuen arabera bertako gerentea Europako Eurometal erakundeko partaidea delako.

ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek patronalaren "borondate falta" salatu dute. "Ez dago beste bilerarik egiteko datarik. FVEMen utzikeriaren eta zabarkeriaren adibide argi eta garbia da", esan dute sindikatuek.

## Durangaldera etorri diren ume sahararrei harrera egin diete

Garrastatxuk "herri eta kultura biren arteko trukaketa" izatea itxaroten du, asteleheneko ekitaldian esan zuenez

**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetatik Durangaldera uda pasatzera etorri diren ume sahararrei harrera egin zieten astelehenean Durangoko udaletxean. Ima Garrastatxu alkatea buru zela, korporazioko alderdi guztietako

hainbat zinegotzi egon ziren harreara ofizialean.

Garrastatxuk uda ona pasatzea opa zien umeei, eta "herri eta kultura biren arteko trukaketa" izatea itxaroten du. Harrera familien eta elkarrekin boluntarioen ekarpenik barik ez litzateke posible izango

ume sahararren aldeko proiektua, eta alkateak euren lana eskertu zuen. "Boluntarioek egiten duzuen lana eskertu eta lan horren balioa nabarmendu gura dut", esan zuen.

Bisekin izandako arazo bategatik, zenbait ume egun batzuk beranduago heldu dira eta horregatik atzeratu da harrera. Durangon lez, Elorrion ere egingo diete harrera errefuxiatuei, hurrengo egunetan.



Ume sahararrak Durangoko udal ordezkariekin batera, astelehenean, udaletxean.





UNAI INGUNZA. 'ZORNOTZA ATZO'

## Hareek denporak!

# JON IDIGORAS 'MARIACHI'-A ZORNOTZAKO JAIETAN

Zornotzako karmenak asteen hasi dira eta datozen asteburu bietan ez da dibertsiorik faltako. Sasoi bateko zornotzarrek ere bazekiten jaietan ondo pasatzen, aste honetako irudian ikusten denez. Lehen planoan dagoena Jon Idigoras politikaria (Zornotza, 1936-2005) da, mariachi moztortuta, bere lagunekin batera: Txitxu, Renteria, Mezo, Berrio, Leopoldo, Intxausti, Emilin eta abar. Argazkia

1963koa da eta Zornotza atzo liburuan dago jasota. Idigorasek 27 urte zituen orduan.

Jaietan herrian muntatzen zen zezen plazan ateratako argazkia da. Idigoras zezen zalea zen, 'El hijo de Juanita Gerrika-beitia' autobiografian kontatzen duenez. "Santanatxu eguneko korrida zen herritarrek gogo handienarekin itxaroten zutena, eta plaza lepo betetzen zen", gogoratzen du liburu horretan.

## Durungaldea asteen

### Galizia plazako ur txorrotak 2020ko udarako ipiniko dituztela aurreikusten dute

**Abadiño** | Lanak lizitatu barik jarraitzen dute, eta, ondorioz, Galizia plazarako aurreikusten diren ur txorrotak ez dira prest egongo 2020ko uda aurretik, Mikel Garaizabal alkatearen esanetan: "Albait bizkorren hasiko gara lan horiek egiten, baina oraindino prozesu luzea geratzen da aurretik". Ur jolasen gunean txorrotak egongo dira, altuera eta indar desberdinetakoak, eta Ermuko eta Markinako ereduak jarraituko diete.

### Zornotzako Larrea eskolan sarbidea hobetzeko lanak hasi dituzte aste honetan

**Zornotza** | Obra hauekin Larrea eskola publikoko irisgarritasuna hobetu gura dute. Besteak beste, arrapala bi ipiniko dituzte, Lehen Hezkuntzako ludotekako sarbidea hobetzeko. Lanak ikasurte berria hasi aurretik amaituta egongo direla aurreikusten du Zornotzako Udalak. Guztira, 82.000 euroko inbertsioa egingo du udalak; horietako 33.800 sarbidea hobetzeko izango dira.

### AP-8 Peajerik Ez plataformak elkarretaratze bira deitu du datozen asteetarako

**Durungaldea** | Uztailearen 23an eta 30ean izango dira elkarretaratzeak, 18:30ean, Iurretako ordaintokian. Plataformako kideek martitzenean ere egin zuten protesta, leku berean. Durungaldeko, Lea Artibaiko eta Ermuko herritarrei protestan parte hartzeko deia egin diete antolatzaileek, ordainsari "diskriminatzaile eta zuzengabea, eta hirugarren munduko N-634 errepeidea" salatzen.



### Zornotzan kontzentrazioa egin dute, emakume zainzaileen lan baldintzak hobetzea eskatzeko

**Zornotza** | Joan den asteburuan protesta egin zuten Zornotzan, udalaren bitartez azpikontratatzaren diren zerbitzuetako emakume langileak babestu eta haiei elkartasuna erakusteko asmoz. Emakume

zainzaileen lan baldintzak hobetzea eskatzea ere izan zuten helburu. "Udalak argi eta garbi adierazi du zeintzuk diren zainza zerbitzuetan enpresak langileei bermatu beharreko lan baldintzak. Era berean, bal-

dintza horiei jarraipen zorrotza egitea exijitzen dugu, eta baldintzak betetzen ez diren kasuetan neurri egoki eta eraginkorrak hartzea hainbat eta arinen", adierazi zuten Zornotzako M8 plataformako kideek.

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



katerin  
ardoak  
iñaki  
uribe

25<sup>urte</sup>  
Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardogia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com



# JAIIAK

Garai + Mañaria + Mallabia

## GARAI MAÑARIA MALLABIA

---

2019ko UZTAILA eta ABUZTUA



*Garaiko jaiak*

Uztailak 24

**19:00** Donien Atxa jasotzea. Ondoren, ezpatadantzarien azken entsegua. Ondoren, Lumagorri oilasko pintxoak dastatzeko aukera.

**22:00** DJ BULL

Uztailak 25

10:30ean, kalejira txistulari, dantzari eta agintariekin.

**11:00** Meza Nagusia San Migel elizan. Ondoren, Santiago irudiaren ohiko prozesioa Eleizabarriraino, agintariena eta Gernikako arbola dantzatuz. Ondoren, ezpatadantzarien saioa.

**18:30** Erregelen erakustaldia

**21:00** BOLUDA KABARET antzerkia.

Uztailak 26

**10:30** Txistulari, dantzari eta agintarien kalejira.

**11:00** Meza Nagusia Eleizabarrin. Ondoren, Santiago irudiaren prozesioa parrokiaraino. Ondoren, ezpatadantzariak plazan. Jarraian, gizonezkoen erregelak eta ondoren emakumeak.

**18:00** Tortilla txapelketa. Partaideek ekarri beharrekoa: sua egitekoa, arrautzak, olioia, patatak, kipula eta gatza.  
SARIAK:  
1. Sukaldari txanoa eta tortillari buelta emateko platera.  
2. Zartagina  
3. Egurrezko mahai tresnak

**21:30** OBANEUKE erromeria

Uztailak 27

**13:00** Poteoa

**14:30** Bazkari herrikoia. Ondoren, bingoa eta DJa

**23:00** Kontzertuak  
- The Van  
- State Alerta  
Ondoren, DJ Ainhua

Uztailak 28

**12:00** Umeen jolasak

**14:00** Jubilatuen bazkaria

**14:00** Haur eta gazteen bazkaria

**16:30** Bits jaia

**17:30** Briska Txapelketa  
SARIAK:  
1. Txapela eta xanpain botila bi  
2. Ardoa  
3. Karta sorta

**18:00** - 21:00 DJ Festa

Uztailak 29

**17:30** Mus txapelketa  
SARIAK:  
1. Txapela eta xanpain botila bi  
2. Ardoa  
3. Karta sorta

Uztailak 30

**19:00** Herri jolasak.

**22:00** Bertsolariak  
• Onintza Enbeita  
• Igor Elortza  
• Unai Agirre  
• Maialen Lunjanbio

**23:30** LUHARTZ

Uztailak 31

**11:00** Meza Nagusia  
Ondoren, herriko umeen dantza saioa.  
Ondoren, Durangaldeko Igel Txapelketa  
1. Pernille  
2. Untxi bi  
3. Gazta

**18:00** Asto proben erakustaldia  
• Ekaitz Elordui (Berango)  
• Iñigo Landaluze (Peruri)  
• Irazola (Mallabia)  
• Anarketa (Garai)

**21:30** Afari herrikoia (bakoitzak berea ekarri beharko du).







Gorka Gansok egingo ditu aurkezle lanak, eta Cecilia Paganinik Amparito pertsonaia gorpuztuko du.

## Boluda Kabaretak umorea, magia eta zirkua ekarriko ditu Garaiko plazara

Cecilia Paganinik hainbat artista gonbidatuko ditu, eta Gorka Ganso izango da aurkezlea

### ZIRKUA • MARKEL ONAINDIA

Garaiko aurtengo jaietako nobedade nagusietariko bat *Boluda Kabareta* izango da. Umorea, magia eta zirkua ekarriko ditu herriko plazara, uztailaren 25ean. 21:00etan hasiko da ikuskizuna. Cecilia Paganiniren konpainiak Plateruena kafe antzokian eskaintzen duen La Noche Boluda ekimenean oinarrituta, ikuskizunak hainbat partaide izango ditu.

Cecilia Paganini argentinarra Iurretan bizi da, eta bertan ekainean antolatutako Plazaratu Astean ere taularatu zuen *Boluda Kabareta*. Kasu honetan, Garaiko plaza izango da artisten elkargunea. Gorka Ganso clownak egingo ditu aurkezle lanak, eta Paganinik gorpuztuko duen Amparito pertsonaia ikusleen barre algarak

ateratzeko asmoa izango du ikuskitunean zehar.

***Iñigo Arroyo Barakaldotik etorriko da, bizikleta gainean akrobaziak eta itzulipurdiak egiteko***

### Ituiñoren magia

Kabaretean parte hartuko duen artista ezagunetarikoa bat Imanol Ituiño magoa izango da. Bilbotarrak Euskal Herriko hainbat plazatan erakutsi izan du bere lana. Iñigo Arroyo Barakaldotik etorriko da, bizikleta gainean akrobaziak eta itzulipurdiak egiteko. Sara Sarinik eta Cia Orainbik zirkua

modalitateak erakutsiko dituzte, Paganinik iragarri duenez.

### Garaiko artistak ere bai

Bestalde, aipagarria da Garaiko zenbait lagunak ere parte hartuko dutela kabaretean. Esaterako, dantzariak euren ekarpena egingo

***Gainera, Koro Benito poeta ere badago Paganiniren gonbidatuen artean***

dute. Gainera, Koro Benito poeta ere badago Paganiniren gonbidatuen artean.

Horretaz guztiaz gainera, musika egongo dela azaldu du *Boluda Kabareta*ren antolatzaileak.

## Dj Bullek girotuko du Garaiko jaietako hasiera, uztailaren 24an musika ipinita

### TXUPINAZOA • MARKEL ONAINDIA

Uztailaren 24an hasiko dituzte Garaiko jaiak, eta hilaren 31ra arte ekintza ugari izango dituzte. Donien Atxaren jasoeraren eta dantzarien azken entseguaren ondoren, oilasko pintxoaren dastaketa egongo da, eta, gauean, Dj Bullek girotuko du jaien hasiera. Musika atalean, erromeriak izango du protagonismoa, baina hilaren 27an The Van eta State Alerta taldeen rock kontzertua egongo da.

Bestalde, uztailaren 30erako bertso saio ederra antolatu dute. Maialen Lujanbio, Onintza Enbeita, Igor Elortza eta Unai Agirre ibiliko dira kantuan.



laz dantzariak eskainitako saioko argazkia. Kepa Bordés

**AbOIZ**

Merkatuko sukaldaritza sasoiko produktuekin  
Astelohen eta astearteetan itxita,  
atseden-egunak

Erreserbetako tel. 946228240  
info@restaurantaboiz.com

San Migel auzoa, 2 GARAI • [www.restaurantaboiz.com](http://www.restaurantaboiz.com)

**HERRIKO JATETXEA**

...

San Migel plaza - GARAI  
Tel.: 946 812 580

**Garaiko Landetxea**

San Migel, 10 GARAI  
944 656 003 / 607 842 190  
[www.garaikolandetxea.com](http://www.garaikolandetxea.com)

**Azkonizaga**

**Edari banaketa**

GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK  
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58  
azkonizaga@azkonizaga.com



Mañariko jaiak

Abuztuak 14

**13:00** Txupinazoa, kanpai hotsa eta Pitxitxiren igoera

**14:30** Herri bazkaria  
Ondoren: Igel txapelketa eta Mus xapelketa

**16:00** Umeen tailerrak

**22:30** Kontzertuak  
· Tremenda Jauria  
· Ezetaerre  
· Gora Etorri  
**OHARRA:** Goizaldeko 4retatik 6etara autobusak etenik barik ibiliko dira joan-etorrian Mañaritik Durangora DOAN.

Abuztuak 15, Andra Mari Eguna

**07:00** Garbiketa

**10:00** Kalejira txistulariekin

**11:00** Meza Kirikiño abesbatzagaz. Ondoren, dantzariak

**13:00** Pilota partiduak:  
· Mañariko kadeteen III. Txapelketako finala:  
**ARTARAZ-BERNAOLA // BILBAO-BARTUREN**  
· Profesionalak:  
**BAKAIKOA-ERASUN // ARRETXE II-SALABERRI**

**17:00** Karabina Jaurtiketa (Ateneo Cinegetico Mugarrak antolatuta).

**18:30** Bizikleta ikuskizuna: BMX eta Trial SHOWa Show Riders-en eskutik

**20:00** Txistorrada

**22:00** Ruper Ordorika

Abuztuak 16, San Roke Eguna

**11:00** Meza. Ondoren, dantzariak

**12:00** Umeentzako bizikleta gynkana  
· Ume bakoitzak bere bizikleta eta kaskoa ekarri beharko ditu

**13:00** Herriko pilotari txikien partiduak

**16:00-18:00** Umeentzat betiko jolasak  
· Arropa zaharrak ekartzea gomendatzen da

**19:30** Dantza alardea

**22:30** Kontzertuak:  
· The Van Music  
· The Potes

Abuztuak 17, San Roke txiki  
Mozorro eguna. Gaia: KIROLA

**12:00** Paella txapelketa

**14:30** Paellak aurkeztu eta sari banaketa.

**18:00** Briska txapelketa

**18:30** POLEKELELE elektrotxaranga

**20:00** Herriko argazki erraldoia

**22:00** Pitxitxiren agurra



Ondo pasatu  
Andra Mari jaietan!



MAÑARIKO  
UDALA



**EZ EZETZ DA!**  
**JAIK ERRESPETUZ GOZATU!**



# Mañariko Haurreskolako kideek botako dute txupinazoa, hamargarren urteurrena ospatuz

Abuztuaren 14an jaiak hasi eta hurrengo lau egunetan estilo askotako musika kontzertuak egongo dira ikusgai; besteak beste, Tremenda Jauria, Ezetaerre eta Gora Etorri taldeen eta Ruper Ordorika musikariaren zuzenekoak ikusi ahalko dira herriko plazan



Mañariarrak jaiari hasiera emateko prest, iazko txupinazo egunean. LEHIOR ELORRIAGA

## JAIK • JOSEBA DERTEANO

Mañariko haurreskolako kideek botako dute jaiari hasiera eman-goen txupinazoa, abuztuaren 14an, haurreskola zabaldu zeneko hamargarren urteurrena ospatzen ari direlako aurten. Txupinazoaren ondoren, azken urteetako ohiturari eutsiz, Mañariko jaietako Pitxitxi pertsonaia igoko dute balkoira, eta, horregaz batera, lau egun iraungo duten jaietan murgilduko dira mañariarrak.

## Hip hop eta trap doinuak

Jaietako lehenengo egunerako, musika jaialdi bat antolatu dute hip hop eta trap doinuekin. Madrildik dator lehenengo taldea: Tremenda Jauria. Emakumeek osatutako laukoteak trapa lantzen du eta aurten IV izeneko lan berria kaleratu dute. Ezetaerre talde galiziarrean ere hip hop erritmoak nagusitzen dira. Ibilbide laburra daramate, baina oparoa, 2016an sortu zirenetik hona lau disko kaleratu dituzte eta.

Jaialdiko hirugarren taldea, Gora Etorri, Durangaldeko musikariak osatzen dute. Hemendik At-en moduko taldeetatik edanda, tekno musika jorratzen dute batez ere.

## Doako autobusak

Jaietako hasierako eguneko jaialdiari begira doako autobusak ipiniko dituzte, gauean Mañaritik Durangora joateko. Hain zuzen, 04:00etatik 06:00etara autobusak etenik barik ibiliko dira joan-eto-

rrian, Jai Batzordeak jakinarazi duenez. Neurri horregaz, Mañari-ra autorik barik joan ahal izatea erraztu gura dute.

## Ruper Ordorikaren zuzenekoak

Musikari oñatiarra abuztuaren 15ean igoko da oholtzara. 1980ko *Hautsi da anphora* disko ezagunetik iazko *Bakarka* azken lanera arteko ibilbide zabalarri errepasoa emango dio. Bere azken lanak adituen erre-konozimendua jaso du. Izan ere, aurtengo martxoan euskarazko diskorik onenaren Etxepare saria jaso zuen.

**Abuztuaren 14ko kontzertuetan doako autobusak ipiniko dituzte goizaldean Mañaritik Durangora joateko**

## The Van Music eta The Potes

Rock zaleek ere izango dute zegaz gozatu abuztuaren 16an, San Roke egunean. The Van Music talde berri-tarrak 60ko eta 70eko blues eta rock taldeetatik edaten du, *Left foot first* eta *Grow* abestietan nabari den moduan. The Potes talde arrasatear-rak, oster, rock eta punk doinuak eramango ditu Mañariko jaietara.

Azkenik, abuztuaren 17an, jaietako azken egunean, Polekelele elektrotxarangk alaituko du kaleko jai giroa.

## Profesionalen pilota partidua eta trial erakustaldia, kirol eskaintzaren barruan

### KIROLA • J.D.

Abuztuaren 15ean, Andra Mari egunean, pilota partidu profesional batez gozatzeko aukera egongo da Mañarian. Promozio mailan dabilzan bikote bi izango dira aurrez aurre: Joanes Bakaikoak eta Jon Erasunek Iker Arretxeren eta Ruben Salaverriren kontra jokatu dute. Aurrenekoak izango dira faborito, Bakaikoa oso sasoi puntu

**Joanes Bakaikoak eta Jon Erasunek Iker Arretxe eta Ruben Salaverri izango dituzte aurkari**

onean dagoela kontuan hartuta. Orintsu, lau t'erdiko San Fermin torneoan finalerdietara heldu da Victor Esteban, Unai Laso eta torneo sei bider irabazi duen Aimar Olaizola kanporatuta. Finalaren atarian, Iñaki Artolak kanporatu zuen. Profesionalen partiduen aurretik, Artaraz-Bernaola eta Bilbao-Barturen bikoteek Mañariko kadeteen txapelketako finala jokatu dute

Egun berean, BMX eta trial arloko profesionalak bizikleta-malabareekin osatutako ikuskizuna eskainiko dute, plazan askotariko arrapalak jarrita.

**HARATEGIA - URDAITEGIA**  
**BIZKARRA**  
BASERRIKO OKELA  
TXORIZOAK ETA ODOLOSTEAK  
Tel.: 946 816 945 • Mug.: 615 781 247 • 48212 MAÑARIA (Bizkaia)

**HERRI-TABER**  
EGUNeko MENUA - PLATER KONBINATUAK - KAZUELATXOAK  
OGITARTEKOAK - OTORDUAK ENKARGUZ  
Herriko plaza • Tel.: 946 200 278 • MAÑARIA

**ERREKONDO**  
*Jaietxea*  
Andra Mari kalea, 1 • Mañaria  
Tel. 600 096 591

**JAVIER BIZKARRA**  
GARRAIOAK

Karga erabilgarria | Andra Mari, 19-1D | Tel.: 659 178 332  
18.000 kg | Mañaria (Bizkaia)

Maderas  
Zugazagoitia  
y Agirre  
S.L.  
Aldegoina Auzoa, 2 -A • MAÑARIA  
Tel/Faxa: 94 681 87 98 • zuagi@hotmail.com

**GARATE**  
Mañondo Baserria, 10  
Tel.: 946 815 600  
48213 Izurtza

**HONTZA**  
**DURANGALDEKO**  
**NATUR ZIENTZIEN**  
**MUSEOA**  
**GORA MAÑARIKO**  
**JAIK!**  
**MUSEOA**  
EBARISTO BUSTINZA KIRIKIÑO KALEA, 18  
48212 MAÑARIA (BIZKAIA) / TL.: 94 621 65 55  
[www.hontzamusoea.eus](http://www.hontzamusoea.eus)



Mallabiko jaiak

Abuztuak 14, eguaztena (Umeen eguna)

- 11:30-13:00** Mallabiko trikitilariak kaleak girotzen
- 12:00** Alkate txikiak umeen txupinazoa botako du eta Gazte Alai dantza taldekoek aureskua egingo diote
- 12:30-14:30 /16:00-18:00** Umeentzako haur parkea: puzgarriak... herriko frontoian
- 18:00** Bits festa parkean
- 18:00-21:00** Kale animazioa Burrunba txarangagaz
- 19:00** Txupinazoa, Gazte Alai dantza taldearen eskutik
- 19:30-21:00** Txokolatada plazan eta, ondoren, V. Adarra jotzea  
**Sariak:** 1. saria 40€-ko erosketa txartela  
2. saria 20€-ko erosketa txartela

**21:30** Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean  
**Mendizabal III – O. Etxebarria // Elordi - Tolosa**  
**Elezkano II - Zabaleta // Altuna III – Rezusta**  
**PILOTA PARTIDURAKO SARRERAK**  
Sarrerak abuztuaren 5etik 13ra salgai udaletxean mallabitarrentzat  
Partidu egunean sarrerek prezio bakarra izango dute: 25€

**23:00** Erromeria Gora Herria taldeagaz, plazan

Abuztuak 15, eguna (Andra Mari eguna)

- 11:00** Meza Jasokunde parrokian  
Ondoren, Mallabiko dantzariak plazan (euria bada, herriko frontoian)
- 17:00** Tute txapelketa Kontzejuzarrean  
Sariak: 1. saria 120€ eta garaikurra  
2. saria 100€  
3. saria 80€  
4. saria 60€  
Izen-ematea: 10€ bikoteko
- 17:30** Mallabiko XXIX. HARRI-JASOTZE SARIA Harri Txikia Mallabia I Kirol Etxean  
Parte-hartzaileak:
- |                 |          |
|-----------------|----------|
| MIKEL LOPETEGI  | Zarautz  |
| XABAT OLAIZOLA  | Zarautz  |
| IÑIGO EIZAGIRRE | Zarautz  |
| MANEX ABURUZA   | Zarautz  |
| IRAITZ ARRUTI   | Zarautz  |
| URETA           | Ermua    |
| MATEO COLOMA    | Orio     |
| INHAR URRUZUNO  | Ondarroa |
| JULIO JIMENEZ   | Avila    |

SARIAK

1. 900€, GARAİKURRA eta TXAPELA
  2. 750€ ETA GARAİKURRA
  3. 600€ ETA GARAİKURRA
  4. 500€
- Gainerako parte hartzaileentzat 300€-ko dieta  
Dagoen marka hausten duenari, 200€

**19:00** The Funes Troup kale antzerkia, parkean

**22:30** Korrontzi dantza taldearen ikuskizuna parkean

Abuztuak 15, eguna (Andra Mari eguna)

- 11:00-14:00** PAELLA eta MARMITAKO lehiaketak  
Izen-ematea 11:30ean  
**SARIAK:**  
MARMITAKOA: 1. saria 110€  
2. saria 55€  
  
PAELLA: 1. saria 110€  
2. saria 55€  
Mallabiko trikitilariak animatuko dute giroa

**12:00** Meza, Jasokunde parrokian

**14:00** Paella eta marmitako lehiaketako sari banaketa

**14:15** Jubilatuen bazkaria Kontzejuzarrean

**16:00** Duo Jamaica jubilatuentzat Kontzejuzarrean

**17:30** Kuadrillen arteko jolasak

**20:00** Mallabitar guztientzat txerri errea  
(2 pintxo, euro 1) eta sagardoa doan

**20:30** Erromeria Luhartz taldeagaz plazan





# Egun osoko egitarau zabal bategaz, mallabitarrek San Roke eguna ospatuko dute abuztuaren 16an

Andra Mari egunaren bezperan hasita, hiru egunean herritarrek gustu eta adin guztietarako ekintzak aurkituko dituzte Mallabian

## MALLABIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abuztuaren 14an, alkate txikiak pregoia irakurrita eta Gazte Alai dantza taldeak txupinazoa jaurtita hasiko dituzte Andra Mari jaiak Mallabian.

Aurtengoan ere, gustu guztietarako ekintzak egongo dira eta eskaintza kultural zabala izango da. Hilaren 15ean, esaterako, *The Funes Troup* kale antzerkia egongo da, eta, ondoren, Korrontzi dantza taldearen ikuskizuna.

### Elezkanok eta Zabaletak Altunaren eta Rezustaren kontra jokatu dute, abuztuaren 14an

San Roke eguna izango da mallabitarrentzat egun handia, abuztuak 16. Egun horretarako, egun osoko egitaraua antolatu dute. Goizetik paella eta marmitako txapelketan batuko dira mallabitarrek, eta herriko trikitilariak girotuko

dute goiza. Horrez gainera, urtero moduan, jubilatuek bazkaria egingo dute Kontzejuzarren.

Bestalde, arratsaldean, 16:00etan, jubilatuentzat Duo Jamaica taldearen kontzertua egongo da Kontzejuzarren, eta 17:30ean kuadrillen arteko jolasak egingo dituzte. Iluntzean, txarri errea eta sagardoa banatuko dituzte. Dantzan emango diote amaiera egunari, Luhartz taldearen erromeriagaz.

### Pilota partiduak 14an

Abuztuaren 14an, jaiak hasten diren egunean hain zuzen, pilota partiduak jokatu dute Mallabian. Partidu nagusian, Danel Elezkanok eta Jose Javier Zabaletak Jokin Altunaren eta Beñat Rezustaren aurka jokatu dute. Horien aurretik, Aitor Mendizabal eta Oier Mendizabal Aitor Elordi mallabitarren eta Xabier Tolosaren aurka arituko dira. Pilota partiduak 21:30ean hasiko dira eta sarrerak aurrez erosteko aukera egongo da.



Ez da musikarik faltako Mallabiko jaietan. KEPA BORDÉS



**Industrias FOCS, S.L.**

TROKEL PROGRESIBOEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA  
TRESNERIAREN FABRIKAZIOA  
HARI BIDEZKO PIEZAK ETA DOITASUN HANDIKO BARNERATZEA

Goitondo poligonoa - Goikoa, z/g - 48269 MALLABIA - Tel.: 943 171 744 - E-mail: focs@focs.es



www.focs.es



**hierros  
arrate, s.a.**

Goitondo Industrialdea, MALLABIA  
Ermuatik Markinarako bidean | 127 PK - 48260 Ermua |  
Tel.: 943 170 612 / 943 170 616 | www.hierrosarrate.es

MAQUINARIA Y MULTIHUSILLOS, S.L.  
**Maymu**

BURU ANITZEKO TORNUETARAKO ORDEZKO PIEZEN  
ETA PIEZA OSAGARRIEN BERRERAIKITZEA,  
KONPONKETA, MANTENUA ETA SALMENTA

Pol. Ind Goitondo Behekoa - naves 3 / 4 MALLABIA-BIZKAIA  
Tel.: 94 657 00 94 - maymu@maymusl.com  
www.maymusl.com



METALEN BERRESKURAPENA,  
BIRZIKLAPENA  
ETA KUDEAKETA

Tel.: 943 172 810  
676 27 15 07



Ganadu garraioa  
**Juan Luis Irazola**

Tel.: 609 794 504  
943 170 651  
48269 MALLABIA

**Excavaciones  
BOLIÑA**  
Mallabia - Bizkaia

**·629 340 410·  
·618 954 280·**  
excavacionesbolina@hotmail.es



**GOIMEK**

**GOIMEK** ere mallabiarrekin

Ondo pasa  
Andra Mari jaietan!



DANOBATGROUP

www.goimek.com





# “Dantza taldea gazteak elkartzeko bidea izan zen”

Gazte Alai dantza taldearen eskutik hasiko dituzte andramariak Mallabian, abuztuaren 14an, 19:00etan

**MALLABIA • AITZIBER BASAURI**

**Gazte Alai dantza taldeak botako du Andra Mari jalei hasiera emango dien txupinazoa, taldea sortu zene-tik 50 urte bete direnean. Dantzari gazteekin, orduan dantzari izan ziren Santos Aranburu Espilla (Mallabia, 1955) eta Mari Karmen Amu-txastegi Zabala (Mallabia, 1955) egongo dira udaletxeko balkoian.**

**Nola jaso duzue gonbita?**

**Santos:** Pozik, dantza taldea go-goan hartu dutelako. Guk utzi genuenetik, taldeak etenen bat edo beste izan du, dantzari edo arduradun faltagatik, baina aurrera jarraitu du eta pozgarria da.

**Mari Karmen:** Hala da, bai. Horre-gatik, dantzari guztiak gonbitatu gura ditugu parte hartzera.

**Hala ere, zuen taldea sortu aurretik ere bazeuden dantzariak Mallabian.**

**Santos:** Bai. 1934an Dantzari Dan-tza egin zuten Mallabian. 14 urte bueltako dantzari taldea zen, ar-gazki zaharretan ikusten denez. Sakristauak osatu ei zuen taldea. Urte batzuetan ibili ziren, gerra zibila heldu arte. Gerora hasi ginen gu, 1969an. Gazte batzuk herriko ohiturak berreskuratu guran hasi ziren eta, besteak bes-te, taldea sortu zen. Neu nintzen gazteena taldean, 14 urte nituen. 14 bat mutiko ginen.

**Nola gogoratzen duzu sasoi hura?**

**Santos:** Dantza taldea gazteak el-kartzeko bidea izan zen. Zapatu iluntzero batzen ginen, entsea-tzeko, eta oso ondo pasatzen genuen. Antzerkia egiten ere hasi ginen. Garizuman debutatu ge-nuen, martxo amaieran. Elizpean jende piloa batu zela dut gogoan, euria zen eta. Ikusmin handia sortu zen.

**Mari Karmen:** Ez dut oroitzapen asko-rik, baina bai pozik ibili nintzela, 16 urte-gaz amak Eibarrera neska-me bidali arte. Andra Marietan eta auzoetan dantzan egiten genuen.

**Durangaldeko elizate guztiek lez Mallabian ere herriko bandera era-bili duzue dantzariok.**

**Santos:** Bai, baina oraingoa erre-plikoa da. Orain urte batzuk desa-gertu zen jatorrizkoa. Pena dut

horregaz. Gogoan dut zer zeukan idatzita. Alde batean, 'Mallabiko dantzariak', eta bestean, herriko armariaren gainean, 'Gora Eus-kal Herria'.

**Jaietarako desio bat?**

**Santos:** Jaietan ahalik eta ondoen pasatzea.

**Mari Karmen:** Santosen moduan neuk ere, eta dantza taldeak au-rrera jarraitzea ere bai.





**RHEYDE**  
lanabesak s.l.

✓ **PERFILATUAK**  
✓ **MOLDAKETAK**  
✓ **BERRESKURATZEAK**

Goitondo ind., 3. pab. - 48269 MALLABIA  
184 PK - 48260 ERMUA  
Tel.: 943 170 898 - rheyde@rheyde.com

**LARZEP**  
HYDRAULIC

Urtiaga etorbidea, 6  
MALLABIA  
info@larzep.com  
Tel.: 943 17 12 00

**URANGA**  
Autoak

Goitondo Ind. pab. 1 - MALLABIA  
Tel. 943 17 97 17  
Whatsapp 685 75 18 48  
www.urangaautoak.com

**IBILGAILUEN  
KONPONKETA ETA  
MANTENIMENDUA**

ondo pasau jaixetan!

**Excavaciones Jon**  
Lur mugimenduak

• Jon Garitagoitia Gallastegui •

**MOTA GUZTIETAKO  
INDUSKETAK  
HONDAKINDEGIA**

Pagotxueta, z/g • GERA - 48269 MALLABIA  
Tel.: 943 17 26 54 • Mug.: 629 446 099





Hondakin ez arriskutsuen  
kudeatzailea: eus.038/04

**RECICLAJES METALÚRGICOS  
JESÚS M.ª CORDÓN, S.L.**

Goitondo-Goikoa poligonoa, z/g - P3A - 6/8 pabellona  
48269 MALLABIA (Bizkaia)  
Apdo. 181 • 48260 ERMUA  
T./F.: 943 174 581 - M. 619 569 595



**BETEARTE**  
Hondakin ez  
arriskutsuen zaborte-gia

BI-3342 errep. Areitio garaia MALLABIA pk. 38  
Tel.: 943 170 307 - Faxe: 943 176 160  
info@betearte.com www.betearte.com





**Abuztuak 2, barikua**

20:00etan **“Donien Atxa”** jaso eta txapligu hotsez jaiei hasiera ematea.

21:00 aldera jai-batzordeak **EUSKAL OKELAZ** egindako gisatua banatuko du jai eremura bertaratutako denen artean.

22:30ean mexikar erromeria **PURO RELAJO** taldeagaz.

**Abuztuak 3, zapatua**

17:00etan **“ MUS TXAPELKETA”**

**Sariak: 1 - 150€, txapelak eta xanpain botila bana.**  
**2 - 100€, garaikurrak eta xanpain botila bana.**  
**3 - 50€, eta xanpain botila bana.**  
**4 - 40€ eta xanpain botila bana.**

Parte hartzeko, 10 euro bikoteko.

19:00etan **TORTILLA TXAPELKETA**

**Sariak: 1- 60€, gazta bat eta ardo botila bi.**  
**2- 40€ eta ardo botila bi.**  
**3- 20€ eta ardo botila bi.**

22:30ean, **BERTSOLARIAK**

- Amets Arzallus
- Maialen Lujanbio
- Andoni Egaña
- Aitor Bizkarra
- Nerea Ibarzabal

Gai-jartzailea: **Maite Berriozabal.**

24:00etan, erromeria **LUHARTZ** taldeagaz.

**Abuztuak 4, domeka**

12:00etan **Meza**

Meza ostean, **HAMABI HARRI** taldeko ezpatadantzarien eta irlanderen dantza saioa.

Goizean zehar **MAKAILAU TXAPELKETA** pil-pil erara.

**Sariak: 1- 80€, gazta bat eta txakolin kutxa bat.**  
**2- 40€ eta txakolin botila bi.**  
**3- 20€ eta txakolin botila bi.**

Aurkeztu eta saririk barik geratu diren partaide guztiei, txakolin botila bana emango zaie. Kazuelak, 14:00etan aurkeztu behar dira.

13:00etan **IGEL TXAPELKETA**

**Saria irabazlearentzat, 30 euro eta txakolin kutxa.**

Parte hartzeko, euro bat ordainduko da.

**Abuztuak 6, martitzena SALBADORE EGUNA**

12:00etan **Meza.**

Meza ostean, ohi denez, aurrekua eta atzeskua dantzatuko dira.

13:00etan, **Gregorio Urionaguena 'AITXU'-ri OMENALDIA.**

Omenaldian parte hartuko dute: **Bizkaiko gaiteroek, Lander eta Jon Ander** trikitilariak eta **Unai Iturriaga** bertsolariak.

Ondoren, jai batzordearen txosnan, kangrejoak banatuko dira.

Goizean zehar, **PAELLA TXAPELKETA.** Paella ontziak 14:00etan aurkeztuko dira.

**Sariak: 1- 75€ eta txakolin kutxa.**  
**2- 50€ eta txakolin kutxa.**  
**3- 20 € eta txakolin kutxa.**

Bazkalaurretik, **EGUERDIKO ERROMERIA Bizkaiko gaiteroekin eta Lander eta Jon Ander** trikitilariekin.

Paella txapelketan parte hartu eta plazan bazkaltzen geratuko direnei, erreserbako ardo botila emango diegu opari, izakinak amaitu arte.

17:00etan, **BRISKA TXAPELKETA**

**Sariak; 1- 120€, garaikurrak eta xanpain botila bana.**  
**2- 70€, eta xanpain botila bana.**  
**3- 50€, eta xanpain botila bana.**  
**4- 30€, eta xanpain botila bana.**

Parte hartzea 8 euro bikoteko.

18:00etan **UMEEN JOLASAK.** Jokoak denentzat, sariak denentzat.

20:30ean, **ERROMERIA Ansorregi eta Larrañagaz.**

21:00etan **ERROMERIA AFARIA Ansorregi eta Larrañaga** trikitilariekin.

Afarirako menua: entsalada mistoa, Eusko Labeldun **LUMAGORRI** oilasko izterrak eta arroz-esnea. Afaria 12 euro izango da, edaria eta kafea barne.

00:30ean Jaien aldeko errifaren zozketa eta jaien amaiera txokolate beroagaz.

**ETXE LAGUNTZAILEAK**

**Abadiño Elizateko Udala; EGUZKI elektrizitate etxea; GESTAMP BIZKAIA; SERAFIN Tailerrak; MURUETA nekazaritza turismoa; ETXETXO igiezinen enpresa; DIBA kooperatiba; SAN ANTONIO okindegia; EROSKI Kooperatiba; SERRATU Itxiturak; LARIN elektrizitate etxea; MESOI BARRIA taberna; AVIDUR 2005 S. L. ; EDURNE Arraindegia; EUSKO LABEL eta BAQUE Kafeak.**

**OHARRAK**

Erromeria afaria 12€ izango da eta txartela aurrez erosi behar da, 626945623 telefonora deituta. Aurten ere jaien aldeko errifa atera da eta txosnan egongo da salgai. 2019ko Hamabi Harriren kamisetak salgai jarriko dira Salbadore jaietan. Jai batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen ezbeharren erantzule egingo.

**Antolatzailea: Gerediaga auzoko jai batzordea eta Hamabi Harri auzo elkarte.**





## Amparanoia eta Esne Beltza

MUSIKA

**ZORNOTZA: uztailak 19 eta uztailak 24**

### Musika eskaintza zabala

Amparanoia taldea agertokietara bueltatu da aurten, eta jai giroz bustitako asteburu honetan geldidunea egingo du Zornotzan. Gaur eskainiko du kontzertua, Ixerbekoan, 23:00etan hasita.

Bestalde, datorren uztailaren 24an, eguazteenan, Esne Beltza taldearen jarraitzaileek aukera paregabea izango dute haiek eskainitako doinuekin gozatzeko. Zubiondo parkean joko dute, 22:00etan hasiko den jaialdian. Egun berean, Benito Lertxundik eta Nogen taldeak ere eskainiko dute kontzertua Zornotzan.

### Uztailaren 19an

**BERRIZ** **zirkua**  
**‘La coquette’ (Kanbahiota)**  
18:30ean, Elizondo plazan.

**DURANGO**  
**Madalenako jaiak**  
**Tortillen aurkezpena**,  
19:00etatik 20:00etara.  
**Dj Gabi**, 19:00etan.  
**Txupinazoa**, 20:00etan.  
**Tortilla dastaketa**,  
20:30ean.  
**Musika**, 21:30ean.

**ELORRIO** **Musikaire**  
**Robert Smith Bluesband**,  
22:30ean, Tola Jauregian.

**OTXANDIO** **jaiak**  
**Umeentzako zirku**  
**tailerra**, 11:30ean, plazan.  
**6. mailakoek txupina**  
**botako dute**, 12:30ean,  
udaletxeko balkoitik.  
**Herriko umeen pilota**  
**partiduak**, 13:00ean.  
**Puzgarriak**, 16:30ean.  
Gero, Kantu Kolore.  
**Tute, mus eta briska**  
**txapelketak**, 17:00etan.  
**Kuadrillen arteko play-**  
**backa**, 22:30ean.

**ZORNOTZA** **jaiak**  
**Kuadrillen kalejira**,  
13:00etan, Kalbariotik.  
**Kuadrillen bazkaria**,  
15:00etan, Ixerbekoan.  
**Aldi bereko 50 xake**  
**partida**, 17:00etan,  
Herriko plazan.  
**Txistularien XX.**  
**Kontzertua**, 20:30ean,  
Zelaietan. Gonbidatuak:  
Mikel Urdangarin, Alex  
Sardui, Unai Ormaetxea,  
Peio Ospital, Norton, Beñat  
Egiarte, Xabi Solano,  
Jaune Gaminde, Keu  
Agirretxea, Niko Etxart, Aitor  
Gorosabel eta AIDAE.  
**Beldur Barik Gunea**,  
22:00etan, Ixerbekoan.  
**Amparanoia**, 23:00etan,  
Ixerbekoan. Gero **Oihan**  
**Vega**. Zubiondon,  
**Alma Mexicana**.

### Uztailaren 20an

**DURANGO** **dantza**  
**‘Block’ (Amaia Elizaran)**,  
19:00etan, Ezkurdin.  
**‘Consequences’ (Moveo**  
**Danza)**, 19:30ean, Benita  
Uribarrena parkean.

**DURANGO** **Madalenako jaiak**  
**Txistulariak**, 10:00etan.  
**Pintura lehiaketa**,  
11:00etan, plazan.  
**Triki-dantza poteoa**,  
12:00etan.  
**Paella**, 13:00etan.  
**Mus eta tute**  
**txapelketak**, 16:00etan.  
**Kars-ak eta txalupak**,  
17:00etan.  
**‘Batalla de Gallos’**,  
19:00etan, Frai Juan  
Zumarragan.  
**The Orquest man**,  
21:00etan eta 23:30ean.  
**Dantza lehiaketa**,  
22:00etan.

**ELORRIO** **Musikaire**  
**Muaren Choi Quartet**,  
22:30ean, Tola Jauregian.

**OTXANDIO** **jaiak**  
**Otxandioko bandaren**  
**kalejira**, 12:00etan.  
**Urbiribil Dultzainero**  
**taldearen kalejira**,  
12:30ean.  
**Paella eta bolo txapelketa**  
**+ zuzeneko musika**,  
14:15ean, San Martinen.  
**Sakatu elektrotxaranga**,  
20:00etan.  
**Nogen + Skaiketan +**  
**Sara Hebe**, 22:30ean,  
Herriko Plazan.

**ZORNOTZA** **jaiak**  
**Umeen arrantza**  
**lehiaketa**, 09:00etan,  
Ibazabal Errekan.  
**Basket 3X3**, 10:00etan,  
Zubiondon.  
**Marmitako lehiaketa**,  
10:30ean, Zubiondon.  
**Umeentzako bolo**  
**txapelketa**, 11:00etan,  
Gure Kirolak bolatokian.  
**XXXVII. Xake Txapelketa**  
**Agustin Zamakona**  
**Memoriala**, 17:00etan,  
Urbano Larruzea kalean.  
**Karmenetako XII. Esku-**  
**Pilota Txapelketa**,  
17:00etan, Amorebieta IV.a  
frontoian.  
**Diskofesta**, 18:00etan,  
Gernika plazan.  
**Kaleko musika: Kittu**,  
20:00etan, Kalbarion  
eta Luis Urrengoetxean.  
**Karmenetako IX. Bolo**  
**txapelketa**, 21:00etan,  
Gure Kirolak bolatokian.  
**Beldur Barik Gunea**,  
22:00etan, Ixerbekoan.  
**London Orkestra**,  
23:00etan, Zubiondon.  
**Kontzertua: IRA**,  
22:30ean, Zubiondon.  
Gero, **DJ jaia: Proyect**  
**Show**.

### Uztailaren 21ean

**DURANGO** **Madalenako jaiak**  
**Herri kirolak**, 12:00etan,  
Frai Juan Zumarragan.  
**Txokolatea**, 18:00etan,  
Madalenako ermitan.  
**Dantza**, 19:00etan.

**ELORRIO** **Musikaire**  
**Dantza: ‘Shojo’**  
**(Mey-Ling Bisogno) + ‘**  
**Fight’ (Lasala) + ‘Block’**  
**(Amaia Elizaran) +**  
**‘Sustraiak’ (Cía. Arima)**,  
19:00etan, plazan.

**OTXANDIO** **jaiak**  
**Diana+kalejira**, 07:30ean.  
**Sokamuturra**, 08:00etan.  
**Omenaldia 1936an**  
**bonbardaketan hildakoei**  
13:00ean, Andikonan.  
**Limonada**, 13:45ean, .  
**Otxandioko eta Araiako**  
**bandak**, 14:00etan.  
**Pilota partiduak**: Ainhoa  
Ruiz de Infante-Olatz  
Arrizabalaga eta Gentzane  
Alday-Amaia Aldai, plazan.  
**Josetxuren eta Iñakiren**  
**(Motxile) omenez** partidua  
eta ekitaldia, 18:00etan.  
**Lotxo taldea**, 22:30ean.  
**Agur Santa Marina**  
00:00etan.



# Otxandioko santamañetan Sara Hebe, Skaiketan eta Nogen taldeek joko dute

**MUSIKA** | Otxandioko santamañek Sara Hebe rap-kantari argentinarra entzuteko aukera eskainiko dute asteburu honetan. Kaleratutako disko berrian, mezu zuzeneko letrak estilo anitzeko musikagaz uztartu ditu Hebek, eta

bertan batutako abestiak entzuteko aukera egongo da, zapatuan, Herriko Plazan. 22:30ean hasiko den jaialdian, Skaiketan eta Nogen talde euskaldunen doinuekin gozatzeko aukera ere egongo da.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **kultura@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

**ZORNOTZA jaiak**  
**Amorebieta-Etxanoko VIII. Jai Lasterketa**, 10:00etan.  
**Ontzi-modelismoaren erakustaldia**, 11:00etan, Jauregibarrian.  
**Umeentzako egurrezko jolasen parkea**, Euskal Herria Plazan: 11:00-14:00/16:00-19:00.  
**Arku-tiroa**, 12:00etan, Jauregibarrian.  
**Zornotzako V. Master Kaiola**, 12:00etan, Amorebieta IV.a Frontoian.  
**Txirrindularitza**, 16:00etan, Nafarroa kalean. Junior maila.  
**Musika: Kittu** 18:00etan, Gernika plazan.  
**Zornotzako altxorra ginkana**, 18:00etan, Zelaieta parkean.  
**‘Kale Gorrian’ (Barsanti)**, 20:00etan, Herriko Plazan.  
**Swingtronics**, 22:00etan, Zubiondon.

## Uztailaren 22an

**ABADIÑO zinema**  
**‘Carmen & Lola’**, 22:00etan, Traña Plazan.

**DURANGO Madalenako jaiak**  
**Argazki erakusketa**, 11:00etan, Plateruen plazan.  
**Meza**, 12:00etan, ermitan.  
**Aurreskua**, 12:30etan.  
**Luntxa**, 13:00etan.  
**Tabira Musika Banda**, 18:00etan, Plateruen plazan.

**OTXANDIO jaiak**  
**Nesken Soka Dantza**, 19:00etan, herriko plazan.

**ZORNOTZA jaiak**  
**Gaztetxoentzat multiabentura parkea (8+ urte)**, Andra Marian: 11:00-14:00/16:00-19:00.  
**Kontzertua: Adebán**, 12:00etan, Herriko plazan.  
**Kuadrillen arteko piragua jaitsiera**, 17:00etan, Ibaizabalen.  
**Umeen danborrada**, 18:00etan, Gudari kaletik.  
**XII. Pala Txapelketa + Emakumeen III. Pala Txapelketa**, 18:00etan, Amorebieta IV.a Frontoian.  
**Bertsoak: Igor Elortza + Aitor Mendiluze + Miren Amuriza + Julio Soto**,

21:30etan, Herriko plazan  
Gai jartzailea: Zornotzako Eta Abar bertso eskola..  
**Anita Parker**, 22:30etan, Zubiondo plazan.


## Uztailaren 23an

**BERRIZ dantza**  
**Hei Show Tamure (Tahiti)**, 19:00etan, Komentuan.

**ZORNOTZA jaiak**  
**Ume eta gaztetxoentzat simulatzaileen parkea**, Herriko Plazan: 11:30-14:30/16:00-18:00.  
**Kuadrillen arteko tortilla txapelketa**, 18:30etan, eta **play back txapelketa**, 20:00etan, Ixerbekoan.  
**Huntza**, 23:00etan, Zubiondo plazan.

## Uztailaren 24an

**ZORNOTZA jaiak**  
**Gaztetxoentzat futbol 3X3, Bubble Soccer eta Bungee Runnin**, Zelaietan: 11:00-14:00/16:00-18:00.



Irailak 13 - 22:30etan  
**MOCKER'S + SERMOND'S**  
Kontzertua



Irailak 14 - 17:30etan  
**NAPIMETAL FEST**  
Kontzaertua

[www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)



**PLATERUENA**

**PLATERUENA**  
**Kafe Antzokia**  
Landako Hiribidea, 4A DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
[jatetxea@plateruena.net](mailto:jatetxea@plateruena.net)



**El Rey León**  
Durangon

**Gazteleku fanfarrea**, 20:00etan, Gernikan, Andra Marian eta Zezilia Gallartzagaitian.  
**Benito Lertxundi**, 20:00etan, Amorebieta IV.a frontoian.  
**Gazteleku fanfarrea**, 21:00etan Kalbarion eta Luis Urrengoetxean.  
**Beldur Barik Gunea**, 21:30etan, Zubiondon.  
**Nogen + Esne Beltza**, 22:00etan, Zubiondon.  
**Trikizio**, 00:30etan Ixerbekoan.

## Uztailaren 25ean

**DURANGO musika**  
**DJ Mister**, 22:00etan, Txoria Nuen Maiten.

## Uztailaren 26an

**ELORRIO Musikaire**  
**Izaki Gardenak**, 22:30etan, plazan.

# Zinea

## :: Durango ZUGAZA

• **El Rey León**  
barikua 19: 19:30/22:00  
zapatua 20: 16:30/17:30/19:15/22:30  
domeka 21: 17:00/20:00  
astelehena 22: 18:30/21:00  
martitzena 23: 20:00  
eguaztena 24: 20:00

• **Bosque maldito**  
barikua 19: 19:30/22:00  
zapatua 20: 20:00/22:30  
domeka 21: 18:00/20:30  
astelehena 22: 18:30/21:00  
martitzena 23: 20:00  
eguaztena 24: 20:00

• **Ayla. La hija de la guerra**  
barikua 19: 19:30/22:00  
zapatua 20: 20:00/22:30  
domeka 21: 18:00/20:30  
astelehena 22: 18:30/21:00  
martitzena 23: 20:00  
eguaztena 24: 20:00



# “Koreografia propioak dantzatzeko aukera izateak sekulako poza ematen dit”



**Amaia Elizaran  
Letamendia**

Dantzaria  
**Tolosa | 1992**

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

**Amaia Elizaran dantzariak hitzordu bikoitza du asteburuan Durangaldean. Zapatuan Durangon eta domekan Elorrioren. 'Raw' eta 'Pool' ikuskizunekin egona da lehendik ere, Elorrioren.**

**Zer da 'Block'?**

Dantza garaikideko pieza bat da, kalean egiteko sortu zena. Ideia nagusia blokeoak dira, gorputz

biren arteko blokeo fisikoak eta sortzen diren oztopoak. Emakume bik interpretatzen dugu, Leire Otamendik eta biok. Musika pieza honetarako, espezifikoki sortu zuen Lander Zalakainek (Belako). **Zelako harrera izan du?**

Ona, esango nuke. Iazko maiatzean estreinatu genuenetik, 30 bider egiteko aukera izan dugu, eta ez genuen espero hainbeste bider dantzatzeko. Hainbat jaial-

ditatik pasatu gara, Fest'arts (Libourne), Cadences (Arcachon), Kalealdia (Bilbo), Kaldearte (Gasteiz), Mapas (Tenerife), Dantza Hirian (Donostia)... eta udan Durangon, Elorrioren, Zumaian eta Irunen ibiliko gara. Abuztuan Belgikan egiteko aukera izango dugu, Ganten.

**Nola sortzen dituzu piezak?**

Ideia fisiko batetik hasten naiz, eta lan taldeagaz inprobisatu egi-

ten dut gero. Bertatik ateratzen diren mugimenduekin osatzen dugu koreografia. Publikoaren interpretazioa irekia da. Ziur-zenik, *Block*-en kasuan, blokeo fisikoak nabariak dira eta denek ikusiko dituzte, baina, gero, bakoitzak bere bizipen bategaz erlazionatuko ditu, egunerokoan aurkitzen diren oztopoekin, edo horiei aurre egiteko bilatzen diren modu desberdinekin.

**Karrikan plataformaren laguntza eduki duzu, ezta?**

Laguntza izugarria izan zen! Alde batetik, sorkutarako hiru espazio izan genituen: Dantzagunea (Errenteria), Mendi Zolan (Hendaia) eta Hameka (Luhuso). Bestetik, lehen aipatutako festibaletan parte hartzeko aukera eman ziguten.

**Kanpoan aritu zara dantzan. Karrikaren moduko ekimenek laguntzen dizute Euskal Herrian ekoizten laguntzen?**

Besteak beste, Londresen, Dublinen eta Madrilén ibili nintzen dantzan, eta ez nuen buruan etxera itzultzea. Baina, *Raw* egin nuenetik, hemen nabil. Lehenengo pieza izan zen, eta nahiko harrera ona izan zuen; beraz, hortik aurrera, Tolosara bueltatzeko erabaki nuen. Orain, pieza berriaren sorkuntza prozesuan murgilduta gaude. *Mar* deituko da gure lehenengo pieza luzea. Urriaren 19an aurkeztuko dugu,

**Londresen, Dublinen eta Madrilén bizitzen egon eta gero, berriro Tolosan bizi da Elizaran**

Gazteszenan, Leire Otamendiren eta Xabier Zeberiorekin zuzeneko musikagaz batera.

**Aukeran, zer gurago duzu, pieza propioak sortzea ala besteek dantzatzeko?**

Ez dakit, biak gustatzen zaizkit. Koreografia propioak dantzatzeko aukera izateak sekulako poza ematen dit, baina beste koreografoentzat dantzatzeko ere asko gustatzen zait. Hori bai, konpainia bakoitzaren atzean dagoen "ofizina lan" guztia izugarria da, eta, nire kasuan, neuk egiten dut dena: proiektua sortu, banaketa... eta ordu asko dira. Alde horretatik, beste koreografoentzat lan egiten dudanean, dantzaz gozatzen dut, eta kito!

## Durangoko Azokako sormen bekaren bigarren edizioak musika izango du oinarri

Sorkuntza musikalean dabiltzan norbanakoek zein taldeek parte hartu dezakete deialdian

**AZOKA • EKAITZ HERRERA**

Durangoko Azokaren sormen bekaren bigarren deialdia publiko egin zuten joan den astean; Gerediaga elkarteak eta Durangoko Udalak elkarlanean sortu zuten sormen beka, iaz. Sorkuntza musikalean diharduten norbanako zein talde guztientzat dago zabalik beka, baina oinarriak bete behar dira, ezinbestean. Euskarazko proiektua izan beharko du, eta sortzaileak berria izan beharko du. Proiektua 18 urtetik gorako edonork aurkeztu dezake, baina Nerea Mujika Gerediagako presidentek dei berezia

**Bekaren onuradunak 15.000 euroko laguntza jasoko du urtebeteko lana garatzeko**

**18 urtetik gorako edonork aurkeztu dezake proiektua, irailaren 21era arte**

egin die gazteei. Baita "modu aktiboan dauden sortzaile jubilatuak" ere. Bekaren onuradunak 15.000 euro izango ditu urte oso bateko sorkuntza garatzeko. Trukean, 2020ko Durangoko Azokan aurkeztu beharko du emaitza. Durangoko Udalak bekarako egindako ekarpena —10.000 euro baino gehiago— azpimarratu du Ima Garrastatxu alkateak.

Proiektuak aurkezteko epea irailaren 21era arte egongo da zabalik. Interesatuak [gerediaga@durango-koazoka.eus](mailto:gerediaga@durango-koazoka.eus) helbide elektronikora bidali beharko dituzte proiektuak.



Ima Garrastatxu eta Nerea Mujika bekaren aurkezpenean.



# Irabazi asteburu pasa zoragarria edo tablet bat!

**Bidali zure argazkiak  
irailaren 15era arte**

## UDA KO 5. ARGAZKI LEHIAKETA

**anboto**   
komunikabideak



Durangaldeko 2018ko  
argazkia  
**IRABAZLEA**

Durangaldetik kanpoko  
2018ko argazkia  
**IRABAZLEA**



## 2 KATEGORIA SARITUKO DIRA

- ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
- DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA

**anboto**   
komunikabideak

LAGUNTZAILEAK



Garaiko  
Landelxea

**EROSKI** bidaiak  
Anatsetan? Ezazu lagun!

**EROSKI**  
Abadiño Zurekin

**d7b**  
databost  
informazioa & informaziozuzketa

Informazio gehiago [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean



# Salvador Daliren 30 obra baino gehiago Durangoko Museoan egongo dira ikusgai, irailaren 15era arte

1970eko hamarkadan eginiko grabatuak eta litografiak dira lanik gehienak; artistaren helduaroako kezkak azaltzen dituzte

**MARGOLARITZA • ARITZ MALDONADO**

Salvador Dali margolari katalan ezagunaren 32 grabatu eta litografia Durangoko Arte eta Historia museoan egongo dira ikusgai udan. Dalik 70eko hamarkadan eginiko

lanak dira ia guztiak, eta artistak garai hartan zituen kezkak adierazten dituzte. "Artista heldu baten obrak ikusten dira, eta orduko garaiko kezka nagusiak agertzen dira bertan: mistizismoa, heriotza

eta denboraren iragana, besteak beste", azaldu du Antonella Montinaro erakusketako komisarioak. Erakusketa osatzeko, *Dimension Dali* dokumentala ikusgai egongo da lehenengo solairuan; Daliren za-

letasunik ezezagunenak agertzen dira ikus-entzunezko lanean, eta horrek berezi egiten du erakusketa. "Margolariak zientziarekiko duen zaletasuna ageri da hor, adibidez", dio Montinarok. Aurretik, Espainiako zenbait hiritan egon da erakusketa.

## "Harro egotekoa"

Dali artista entzutetsuaren obra Durangoko Museoan edukitzeak duen garrantzia azpimarratu gura izan du Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak: "Luxu bat da horrelako artisten lanak Durangora ekartzea. Oso harro egoteko modukoa da, izan ere, normalean, hiriburuetara joan behar izaten dugu horrelakoak ikustera". Aurretik, Picassoren eta Chillidaren lanen erakusketak ere egon dira museoan ikusgai.

Erakusketa irailaren 15era arte egongo da ikusgai. Datorren ikasturtean, gainera, Jose Manaut artista ospetsuaren lanak egongo dira ikusgai, Arrizabalagaren esanetan.



Montinaro, Arrizabalaga eta Durangoko Udaleko kideak, erakusketaren aurkezpenean.

**Gai libreak**

Antton Uriarte Salterain  
Musikaria




## Urtaroa

Uda da eta urtaro honek berekin dakarrenez, denak behar du kolorez bete, denak festaz eta alegriaz. Ez lekurik utzi tristurari. Itzalik ez, denak irradiante behar duen bizimodu idiliko honetan. Izan zoriontsu eta elkarbanatu, ez dakit berba esanahi higituagorik izan dugun hiztegi. Izena eta izana bat joan ohi direla eta, susmoa dut zoriontasun hitzaren higadurak berak ez ote dion izanari efimerotasun eta hauskortasuna ekarri. Eta horretan dihardugu, felicidade horren bila, ahal dela bizkor, posible bada erraz, fragile pegatina gorria Amazoneko kutxatan erositako babiliztan.

Eta zoriona... elkarbanatu, sarri elkarrekin partekatu baino poztasun hauskor hori birrelikatzeko bada ere, ahal dela erakutsi. Norbere burua bizipozaren makillaje hautsez apaintzea ez da inoiz horren erraza izan. Nik ere egin dut hori, aizue.

Isiluneak zarataz betetzen ditugun era berean nahi izaten dugu argia ilundu orduko piztu, isiltasunean zer entzun eta ilunetan zer ikusi badagoela ikastearen nagiaz. Eta hala egin izaten dugu gure zauriekin ere, tiritaz josi eta josi, estalpean ito eta desagertuko diren esperantzaz.

Alabaina, uda aldi bateko kolore eta euforia kapaz esaltzeko baino, izan liteke geruzak kendu eta biluzteko aroa, isiltasunari arreta jarri, iluntasunari so egin eta zauriei erreparatzekoa. Estalitakoa gainazaleratu eta lehertzeko sasoia. Udazkenak tiritak busti eta agerikoa mingarriagoa egin ez dezan.



'La Coquette' zirkuak.

## 'La Coquette' kale ikuskizunak zirku erraldoi bihurtuko du Elizondo plaza

Datorren martitzenean, uztailak 23, dantza tahitiarrez gozatu ahal da Berrizko komentuan, 19:00etan

**KULTURAZ BLAI • A.M.**

Kulturaz Blai jaialdiaren barruan, beste kultur ekitaldi bi egongo dira Berrizen uztailan. Gaur, Elizondo plaza La Coquette zirkuak karpa bilakatuko da. 50eko hamarkadatik etorritako artista bi dira bertako protagonistak. Kanbahiota konpainiaren lanetan ohiko den legez, aire akrobaziak izango dira emanaldiko

protagonista nagusiak. Abraham Pavon eta Rossina Castelli dira akrobatak. Familia guztiarentzako moduko ikuskizuna da.

Bestalde, martitzenean, uztailak 23, dantza tahitiarrak egongo dira ikusgai komentuan. Hilani Tama buru duen Hei Show Tamure dantza konpainiak ia hamar urte daramatza emanaldiak eskaintzen.

# hitz

liburudenda

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

**EZ DA ERDITZEA**  
Ione Gorostazu (2019)

**GORA KOLORETAKO AZAZKALAK**  
Acosta, Amavisca & Gusti (2019)

**XOMORROAK (CD)**  
Juantxo Zeberio Etxetxipia (2019)

R.P.S. 214/06

A. Urreta

podología

**Adinara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

**IMQ**

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404

**BODEGUILLA**

**TRANA-MATIENA**  
Tel.: 94 681 43 85



# Aurrealdea eta defentsa indartzeko hainbat fitxaketa eginda, Amorebieta futbol klubak ekin dio aurtengo denboraldiari

Lehen mailako taldeen kontra hasi dute prestakuntza: datorren eguaztenean, Osasunak bisitatuko du Urritxe zelaia

**FUTBOLA** • JOSEBA DERTEANO

Amorebieta futbol klubak hasi du Bigarren B Mailako aurrendenboraldia. Hainbat fitxaketa eginda, iaz baino errendimendu erregularragoa lortzea izango dute helburu. Izan ere, aurreko denboraldian sufritu egin zuten lehenengo itzulian eta, bigarreanean, oster, sekulako errendimendua erakutsi zuten.

Aste honetan, talde nagusia aurkeztu eta denboraldi berrira begira egindako fitxaketen berri eman dute. Aurpegi berri dezente aurkitu daitezke taldean, batez ere atzealdeko eta aurrealdeko lerroetan. Erasoko jokoa Durangoko Kulturaletik joan diren jokalaririk bigaz indartu dute: Ekain Zenitagoiagaz eta Iker Amorrortugaz. Atzealdeari sendotasun handiagoa eman guran, honako jokalaririk hauek batu dituzte, besteak beste: Aimar Sagastibeltza Gernika taldeetik, Aitor Aldalur Burgos taldeetik eta Beñat Garro Real Union taldeetik. Atean ere nobedadeak daude. Burgos taldeetik Mikel Saizar etorri da, eta

Santurtzitik, Alvaro Perez. Iñigo Velez de Mendizabal entrenatzailea gustura dago osatutako taldeagaz: "Ekarri gura genuen jendea ekarri dugu eta klubean mantendu gura genituen jokalaririk garrantzitsuak geratu egin dira", adierazi du.

## Estreinaldia Eibarren aurka

Denboraldi-aurreko lehenengo partidua ez dira nolanahikoak. Herenegun Eibarren kontra jokatu zuten eta datorren asteko eguaztenean, 18:00etan, Osasunaren bisita jasoko dute Urritxen. Talde biak Lehen Mailan dabilta.

Eibarrek 1-3 irabazi zuen Urritxen, baina prestakuntza partiduetan gutxienezkoa da emaitza. Aipatzekoa da Amorebietaren gola Kulturaletik etorri den Ekain Zenitagoiak sartu zuela.

Aurrera begirako hitzorduetan, Durangoko Kulturalaren kontra Urritxen jokatu dute lagunartekoa nabarmendu daiteke: uztailaren 31n izango da norgehiagoka, 11:00etan.



Amorebieta futbol klubeko aurtengo taldea, Urritxe zelaian egindako aurkezpenean.

## Eibarren kontrako lagunartekoan Ekain Zenitagoiak sartu zuen Amorebietaren gola

## Kulturalaren aurkezpena

Durangoko Kulturalaren denboraldi-aurrea ere abian da eta datorren asteko astelehenean egingo dute talde nagusiaren aurkezpen ofiziala, Tabira futbol zelaian. Iaz jaitsi eta gero, aurtun Hirugarren Mailan arituko da Durangoko taldea.

Aurtengo fitxaketei dagokienez Pablo Fita (Zamudio) eta Anton Alberdi (Iurretakotik) defentsak, Jon Azpiaz (Iurretakotik), Ander Sanchez (Anglet taldeetik) eta Jokin Reche (Astrabudatik) erdilarik eta Ander Franco (Balmasedatik) aurrelaria nabarmendu daitezke.

## Asteko kirolaria



OSCAR SOLANA MARTIN

Abadiño, 2001

Txirrindulari saiatua da Oscar Solana. Gainera, taldearentzat lan egin behar duenean ez du arazorik izaten gazte abadiñarrak. Astebu-

## “Aurrerantzean Bizkaiko txapelkunaren maillotak leku berezia izango du gurean”

Gaur a Rent a Car la Tostadora taldeko txirrindulariak Bizkaiko txapelketa irabazi du

ruan, orain arte eginiko lanaren saria jaso du, eta Bizkaiko txapelketa irabaztea lortu du.

**Bizkaiko Txapelketa irabazi berri duzu. Pozik zaude lortutakoagaz?**  
Oso pozik nago, sinistu ezinik. Gainera, nire lehenengo garaipena izan da eta txapelketa batean lortu dut. Aurrerantzean Bizkaiko txapelkunaren maillotak leku berezia izango du gurean.

**Ihes eginda helmugaratu zinen, bakarrik. Nola joan zen lasterketa?**  
Hamabost bat txirrindularik ihes egin genuen, eta, azkenean, bederatzi txirrindularirik indartsuenak gelditu ginen. Taldekide batek taldetxotik ihes egin zuen, eta bera harrapatu zutenean neuk jo nuen eraso. Helmugara bakar-bakarrik heltzea lortu nuen.  
**Zer pasatu zen zure burutik azken kilometro horietan?**

Egia esan, momentu oro atzera begiratzen nuen. Helmugatik lehenengo pasatzea nuen helburu. Podiumean ezin nuen sinistu lortutakoa, eta urduritasunaren ondorioz oso serio nengoen. Ematen ez zuen arren pozarren nengoen.  
**Taldekideen alde dena ematen duen txirrindularia zara. Nola definituko zenuke zeure burua?**  
Ipurtarin samarra naizela esango nuke. Aurrean egotea gustatzen

zait, erasoak jo edo taldeari laguntzen. Ez zait batere gustatzen neur burua tropelaren erdian sartuta ikustea.

**Zer beste helburu ipini diozu zeure buruari denboraldi honetarako?**

Iruñeko Itzulian postu on bat egitea gustatuko litzaidake. Maila handiko txirrindulariak egoten dira han, eta lasterketa onak egiteko prestatzen nabil. Gainera, horrela jarraituz gero, maila onean helduko naizela uste dut, oraindik %100ean ez nago eta.

**Aurtun talde sendoa daukazu Gaur a Rent a Car la Tostadoran.**

Oso txirrindulari onak ditugu, gaitasun handikoak. Horrez gainera, borrokan aritzekoak gara eta oso garrantzitsua da hori.

**ARRETXE GESTION**  
ERAKUNTZA ETA BIRGAIKUNTZA

TXALETAK - TXOKOLAK - FATXADAK  
BASERRIAK - ETXEBIZITZAK TEILATUTAK  
NABEAK - ERATISKETAK - MARMOLGINTZA  
HARGINTZA - INPERMEABILIZAZIOA

GREMIOEN ZUZENDARITZA ETA KOORDINAZIOA

WWW.ARRETXEGESTION.COM INFO@ARRETXEGESTION.COM  
658 120 215 ZAMUDIO / BIZKAIA



merkataritza  
gida sarean

[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)

**Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!**

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902  
Argazkiak - Datuak - Kokapena  
(urtean 50€)



# Durango Rugby Taldeak Euskal Ligaren alde egin eta Espainiako federazioaren eskaintzari uko egin dio

"Baldintzarik bako babesa erakusten dugu Errugbiko Euroeskualdea sortzearen alde", adierazi du komunikatu batean

**ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO**

Aurreko denboraldian, Durango Rugby Taldeko gizonen talde nagusia Ohorezko B Mailatik jaitsi zen, 15 urtean maila horretan aritu eta gero. Harrezkero, Espainiako Errugbi Federaziotik idatzi bat jaso dute, Ohorezko B Mailako promozio fasean parte hartzeko aukera eskaintzen diena. Baina Durango Rugby Taldeak uko egin dio eskaintzari. "Zuzendaritzatik jakinarazi gura dugu ez dugula promozio horretan parte hartuko", informatu dute ohar baten bitartez.

Arrazoi nagusia Durango Rugby Taldeak "Euskal Ligaren alde" egin gura duen "apustua" da. Izan ere, hainbat erakunde Euskal Herriko Liga bat sortzeko lanean dabilta azken urteetan. Iparraldeko eta Hego Euskal Herriko taldeek osatuko lukete. Hurrengo denboraldian ez bada, hemendik bira egon daiteke martxan, eta Durango Rugby Taldeak bertara batzeko asmoa du. Horrela adierazi zuten 2018ko maiatzaren 24an kaleratutako eta

Euskadiko Errugbi Federazioari helarazitako dokumentuan. "Bertan, baldintzarik bako babesa erakusten dugu Errugbiko Euroeskualdea sortzearen alde. Uste dugu, klub amateurren garen neurrian, gure

esfortzu guztia aipatutako liga hori indartzera bideratu behar dugula, helburua lortu arte", adierazi dute oharrean.

"Eskerrak" eman dizkiete 15 urtean Ohorezko B Mailan bidelagun

izan dituzten guztiei, eta bide berri bati ekiteko nahia adierazi dute. "Alde batera uzten dugun lehiaketari inolako kalterik egin gura barik, gure apustua lurralde eremuaren alde egitea da", azaldu dute.



Durango Rugby Taldeko gizonen talde nagusia denboraldi hasieran egindako aurkezpenean.

## Lau t'erdiko Master Kaiola txapelketako finalak jokatu dituzte domeka honetan

22 urtez azpiko mailan Gaizka Karregalek eta Julen Alberdik neurtuko dituzte indarrak Zornotzako pilotalekuan

**PILOTA • JOSEBA DERTEANO**

Zornotzako Master Kaiola txapelketako finalak domeka honetan jokatu dituzte, 12:00etan hasita. 22 urtez azpikoan Gaizka Karregal galdakoztarrak eta Julen Alberdi zizurkildarrak neurtuko dituzte indarrak. Ez dira pilotari jotzailerak, baina bai defentsa latzekoak eta sekula ere errenditzen ez diren horietakoak. Alberdik txapelketa

bigarren urtez jarraian irabazteko aukera du, iaz gazte mailan nagusitu eta gero.

Gazteen mailako finala Beñat Senar ataundarraren eta Iosu Igoa esteribartarraren artekoa izango da. Bietako batek ere ez du bestea garbi hausteko kolperik, baina oso pilotari konpletoak dira eta lanak ez die beldurrik ematen. Adituek final orekatua itxaroten dute.



Julen Alberdi pilota txokoa uzten Master Kaiolako finalerdietan. **JULEN URIBE**

**Adituaren txokoa**

Kepa Arroitauregi  
Egaña  
Pilota teknikaria



**Jada erreferente**

Bost urte eta bost edizio. Horiek dira Zornotzako Lagun Onak pilota elkarteak daramatzanak Master Kaiolako abenturan. Apustu bat izan zen orduan eta gaur egun jada erreferente da Euskal Herriko pilotazale guztientzat. Amateur mailan behinik behin.

Urtero izen eta joko handiko pilotariak parte hartu dute Master Kaiolan. Txapelkunak, nola ez, denak onak. Aranguren eta Peio Etxebarria, adibidez, gaur egun profesional dabilzkanak. Dena den, emaitza bikainenak lortutakoa Lazkao Zubizarreta da. Aurreko lau edizioetatik hirutan finalean izan da eta eurretako bitan txapelkun geratu da gainera. Aurten ere faborito zen, baina bere estreinakoa (final-laurdenetan) Zelaian bertan orkatila bihurtu eta ezin jarraituz penaz egin dio aurten agur 'kaiola'-ri.

Garaia partiduz jositakoa denez, izan dira hutsegite nabarmenak, bai (Salaberria, Canabal, Lerena, U. Alberdi, Osoz,...), baina jokatu duten denek maila handia eman dute.

Lehiaketa zabala izatetik, iazko urtetik hasita lehiaketa kontzentratuagoa egitera jo da Zornotzako lehiaketan ere, beste toki askotan lez. Horrek, noski, aldekoak eta kontrakoak ditu, baina, nire ustez, formatu eta kopuruan asmatu egin dute. Pilotariak eta ikusleak gustura eta gogoz agertzen dira beti Zelaian pilotalekuan.

Finalen atarian gaude eta aurkezpenean aipaturiko faborito nagusiak ez dira ageri finalisten zerrendan. Batzuk lesioen ondorioz, beste batzuk ezin izan direlako etorri, eta gazte mailan, adibidez, Gutierrezen eta Larrazabalen kasuan, parean tokatutako pilotariak ere maila ikaragarria dutela erakutsi dutelako. Pilota borobila dela!

**CERAMICAS MACOBER**

MATERIAL DE CONSTRUCCION

**Chimeneas**

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

**GAER DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



**ETXETXO**  
**G. INMOBILIARIA**  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
**www.inmoetxetxo.com**

**AMBOTO**  
**INMOBILIARIA**  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
**www.inmodurangesado.com**  
inmodurangesado@gmail.com

**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423  
48200 DURANGO • Bizkaia

**www.inmodurangesado.com**

**BERRIZ** 4 logela  
155 m<sup>2</sup>  
**AUKERA** 155 m<sup>2</sup>. 3 solairu igogailuagaz. 4 logela, 3 komun, sukalde-jangela eta egongela tximiniagaz. Estudioa. Trastelekua.  
**160.000€**

**DURANGO** 3 logela  
2 komun  
**TRONPERRI** 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Ganbara eta garaje itxia.  
**292.000€**

**DURANGO** 3 logela  
2 komun  
**PLATERUEN PLAZA** 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara eta garajea. 288.000 €. Negoziagarria.  
**288.000€**

**DURANGO** 82 m<sup>2</sup>  
**ERRETENTXU** 82 m<sup>2</sup>. Guztiz berriztatua. Berria. Terraza. Bizitzentzako moduan.  
**240.000€ Neg**

**DURANGO** 3 logela  
1 komun  
**AUKERA** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. 1. mailako materialekin berriztatua.  
**97.500€**

**DURANGO** 2 logela  
2 komun  
**TABIRA- DUPLEXA** 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea 132 m<sup>2</sup>-ko terrazagaz. 52 m<sup>2</sup>-ko etxabe gardena, bainugelagaz. Garaje itxia.

## //ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Eraikiberria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000€-tik hasita.

**DURANGO:** Komentukalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa.

**DURANGO:** Jose Miel Barandiaran. Etxebizitzaederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

**DURANGO:** Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegiederrak.

**DURANGO:** Hegoaldeko katea. Eraikintxikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. MERKEA.

## IURRETA

**Maspekalea:** 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

**ZALDIBAR:** 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

## //LURSAILAK SALGAI

**Gaztelua:** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Lekuonean. Egokia.

**ABADIÑO:** 1.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila salgai. Bifamiliarra eraikitze baimenagaz. Zonalde egokia.

**IURRETA:** 5 hektare inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

**ABADIÑO:** Bifamiliarra eraikitze baimenagaz. 1.000 m<sup>2</sup>. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA:** EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitze baimenagaz. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO:** Bifamiliarra salgai. 4 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. Garajea.

**MAÑARIA:** Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Bizitzentzako moduan. Oso polita.

**ELORRIO:** Aldape auzoa Baserria berriztatuko. 3 hektare inguruko lursaila. Prezioa: 125.000€

**ATXONDO:** Baserri ikusgarria Martza auzoan. 15.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Teilatua berriztatua. Zonalde egokia.

**BERRIZ:** Murgioitio auzoa. Bifamiliarra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela eta 6 komun. Garaje bikoitza. 12.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Leku ezin hobea, Anbotora begira.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuko.

**BERRIZ:** Baserriederra, Murgioitio zonaldean. 3 hektare inguruko lursaila.

## //BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADIÑO

40 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## //LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## //LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

**MATIENA:** 460 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

**www.inmodurangesado.com**

**DURANGO** 3 logela  
**ASKATASUN ETORBIDEA.** ERAIKUNTZA BERRIA. 3 logela. Ganbara eta garajea barne.  
**285.000€ + BEZ**

**DURANGO** 3 logela  
2 komun  
83 m<sup>2</sup>  
**MURUETA TORRE:** 83 m<sup>2</sup>. Bizitzentzako moduan. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.  
**290.000€**

**ABADIÑO** 160 m<sup>2</sup>  
**AUKERA:** 160 m<sup>2</sup>. Edozein jarduerarako prest. Komuna, aire egokitua eta telefonorako zein telebistarako hargunea.  
**185.000€**

**DURANGO** 2 logela  
50 m<sup>2</sup>  
**JUAN DE ITZIAR:** 50 m<sup>2</sup>. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Berogailua. Ikuspegiekin.  
**130.000€**

**DURANGO** 3 logela  
3 komun  
**KALEBARRIA:** 3 logela, egongela, sukalde jantzia, eskegitokia eta 3 komun. Ganbara.  
**129.000€**

**MATIENA** 2 logela  
51,9 m<sup>2</sup>  
**MATIENA:** 51,9 m<sup>2</sup>. 2 logela, komuna, egongela eta sukalde jantzia. Igogailua jartzeko prozesuan. 12,40 m<sup>2</sup>-ko ganbara.  
**73.600€**

## //DURANGO

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z=F

**ANTSOESTEGIZ:** 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E

**ERRETENTXU:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran

**EZKURDI:** 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, 2 bainugela eta igogailua. **260.000€** / E.E.Z=E.

**EZKURDI:** 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500€ / ORAIN **300.000€** / E.E.Z=F

**KALEBARRIA:** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela. **82.000€** / E.E.Z=G

**KURUTZIAGA:** 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000€** / E.E.Z=Bidean

**MONTEVIDEO:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. **230.000€**. / E.E.Z=F

**SANTIKURUTZKALEA:** etxebizitza bifamiliarra eraikitze baimenagaz 600m<sup>2</sup> ko lurzorua. **640.000€**

**ZEHARKALEA:** 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / ORAIN **130.000€** / E.E.Z= E

**ZUMALAKARREGI:** 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000€** / E.E.Z= E

## //ABADIÑO

**ZELETABE:** 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576€ / ORAIN **278.000€** /E.E.Z=E

**ARLOZABAL:** 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.Z=Bidean

## //BERRIZ

**BERRIZBEITIAKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000€** / E.E.Z= F

**BILBO ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela-jangela eta 3 komun. Balkoia. LEHEN 195.000€ / ORAIN **160.000€** / E.E.E=E

**ERROTATXOKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000€ / ORAIN **85.000€** E.E.Z=E

## //IURRETA

**FAUSTE:** Baserria lurzoruagaz, **220.000€** / E.E.Z=G

**SANTA MAÑA:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trastelekua. Lursailagaz. **125.000€** / E.E.Z=G

## //MATIENA

**TXINURRISOLO:** 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z=F

## //OTXANDIO

**ELIZABARRI:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E=F

**OLETA AUZO:** Banakako etxebizitza. 460 m<sup>2</sup> 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. **480.000€** / E.E.Z=E

## //BERRIAK

## //ABADIÑO

**ZELETABE:** 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. **235.000€** / E.E.Z=E



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



- HIGIEZINAK
- TEKNOLOGIA
- LANA/NEGOZIOAK
- DENETARIK
- IBILGAILUAK
- HARREMANAK
- AISIA/KIROLA
- FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzako. Erregistratu [www.anboto.iragakilaburrak.com](http://www.anboto.iragakilaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org) helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak  
ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

**Elorrio.** Atiko polita errentan Elorrion. 50 m2. Igogailuarekin. Tel.: 631 12 31 06

**Abadiño.** Muntzaratz auzoan, 90 m2-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

ETXEBIZITZAK ERRENTAN  
EMAN

**Zaldibar.** Zaldibarren herri erdigunean, 3 logelako pisua, oso eguzkitsua, igogailuarekin. Tel.: 616 24 30 53

ETXEBIZITZAK ERRENTAN  
HARTU

**Elorrio.** Elorrioko bikote arduratsu bat gara eta alokairuzko pisu bila gabiltza (Elorrion bertan). Tel.: 688 64 06 04

LAN ESKARIAK  
PERTSONAK ZAINDU

**Esperientziadun umezaina.** Kaixo Irantzu naiz eta Durangon bizi naiz. Urte askotako esperientzia daukat umeak zaintzen eta begirale bezala. Umezain lan bila nabil. Ahal izanez gero ordu solteak edo lanaldi erdira. Tel.: 644 41 11 74

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

**Lan bila nabil pertsonak zaintzen.** Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

IRAKASKUNTZA

**Zientziako klase partikularrak.** DBH (3. eta 4. mailan) eta Batxilergoan laguntza klaseak ematen ditut: matematika, fisika/kimika eta teknologia ikasgaietan. 5 urtez irakaskuntza formalean ibili naiz eta zientzietako ikasgaietan daukat formaziorik handiena. Interesik badaukazue jarri nirekin harremanetan: Tel.: 669 69 24 30 (Ane)

LAN ESKAINTZAK  
ETXKO LANAK

**Plantxa orduka egiten dut.** Esperientzia handiko emakumea, orduka plantxa zein etxeko lanak egiteko prest. Durangon edo lurretan. Tel.: 645 70 6839

PERTSONAK ZAINDU

**Umeak zaintzeko.** Umeak goizetan eskolara eramateko edo zaintzeko prest nago. Eguerdietan eta arratsaldetan seietatik aurrera ere ahalko nuke. Urte askotako

esperientzia daukat. Irantzu Tel.: 644 41 11 74

**Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut.** Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoa zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuek deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

**Barneko langile gisa lan bila.** Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko prest nago. Baita etxeko garbiketa lanak egiteko, arropa litzeko eta sukaldaritza lanak egiteko ere (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin: Tel.: 644 55 83 90

**Barneko langile gisa lan bila.** Barneko zein kanpoko langile gisa lan

bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu Tel.: 643 72 71 98 telefono zenbakira.

**Pertsona nagusiak zaintzeko.** Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

**Mallabian pertsona bat behar dugu andre bat zaintzeko.** 12:00etatik 19:00etara Mallabian andre bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Euskaraz jakin dezala. Mallabiko edo Ermukoa bada hobeto. Tel.: 695 78 78 99



SAMARA VELTE  
ASTE HONETAN  
DANA D'CAPRICHIO


DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



**ttap**  
Irakurri, ukitu,  
ikusi, entzun.

Informazio gehiago:  
[ttap.eus](http://ttap.eus)



DESKARGATU  
Play Store-n

DESKARGATU  
APP Store-n



HAUXE BAI JENEROA!

EUSKARALDIA, URTEAN BEHIN...

BELARRI  
PREST

AHO  
BIZI

...ERDARALDIAK, BERRIZ, NOIZNAHI

ETA HEMENDIK AUERRERA,  
EN CASTELLANO, PARA QUE  
TODOS ENTIENDAN

PERO  
QUE POCA  
CULTURA  
DEMOCRATICA,  
¡HOMBRE!

¿¿COMO QUE NOS VAIS A DAR  
LA TXAPA CON EL EUSKERA?!

Botikak

|                                                               |                                                               |
|---------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------|
| <b>BARIKUA, 19</b> - 09:00-09:00                              | <b>MELERO, ROSA MARI</b><br>San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>    |
| <b>UNAMUNZAGA</b> Muruetatorre 2C - <b>DURANGO</b>            | <b>ASTELEHENA, 22</b> - 09:00-09:00                           |
| <b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>       | <b>SAGASTIZABAL</b><br>Askatasun etorb. 19 - <b>DURANGO</b>   |
| <b>09:00-22:00</b>                                            | <b>RUIZ, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>     |
| <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b> | <b>09:00-22:00</b>                                            |
| <b>ZAPATUA, 20</b> - 09:00-09:00                              | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b> |
| <b>IRIGOIEN</b> Bixente Kapanaga 3 - <b>IURRETA</b>           | <b>MARTITZENA, 23</b> - 09:00-09:00                           |
| <b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>       | <b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>         |
| <b>09:00-13:30</b>                                            | <b>RUIZ, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>     |
| <b>CAMPILLO</b> Montevideo etorb. 24 - <b>DURANGO</b>         | <b>09:00-22:00</b>                                            |
| <b>BAZAN DIAZ</b> Uribarri 5 - <b>DURANGO</b>                 | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b> |
| <b>DE DIEGO</b> Intxaurrondo 22. - <b>DURANGO</b>             | <b>EGUAZTENA, 24</b> - 09:00-09:00                            |
| <b>JAIO-ABENDIBAR</b><br>Errekakale 6. - <b>ELORRIO</b>       | <b>GAZTELUMENDI</b> J.A. Abasolo 2 - <b>DURANGO</b>           |
| <b>MELERO, ROSA MARI</b><br>San Pedro 31 - <b>ZORNOTZA</b>    | <b>RUIZ, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>     |
| <b>09:00-22:00</b>                                            | <b>09:00-22:00</b>                                            |
| <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b> | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b> |
| <b>DOMEKA, 21</b> - 09:00-09:00                               | <b>EGUENA, 25</b> - 09:00-09:00                               |
| <b>NAVARRO</b> Artekalea 6 - <b>DURANGO</b>                   | <b>DE DIEGO</b> Intxaurrondo 22. - <b>DURANGO</b>             |
| <b>09:00-22:00</b>                                            | <b>RUIZ, JUAN</b> El Alto-Bide Zahar 14 - <b>ZORNOTZA</b>     |
| <b>GUTIERREZ, IBAN</b> Txiki Otaegi 3 - <b>ZORNOTZA</b>       | <b>09:00-22:00</b>                                            |
| <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b> | <b>SARASKETA, DIEGO</b> Luis Urrengoetxea 5 - <b>ZORNOTZA</b> |
| <b>22:00-09:00</b>                                            |                                                               |

Eskela



Eider Sarriugarte Alzola

Zure bide honetan konkistau gaituzun bihotz danok  
goguen eukiko zaittugu.  
*Hurrengora arte*

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, **Nikole!** Gure etxeko txikia handitzen hasi jakule, 3 urte dagoeneko! Asteburuen ospatuko dogu merendola eder bategaz! Mosu erraldoi bat etxeko danon partez, batez be, Eleneren partez.



GOZATU  
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozategia

Zorionak, **Jon (771. alea)!** Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Zorionak, **Iker,** etxeko danen partez, batez ere, loben partez.



Gora **Cristina!** Zorionak familia guztiaren partez! 88 urte hauek zurekin poztasunez ospatzen ditugu. Maite zaitugu!



Zorionak, maravillas! Mosu handi handi bat Kobetamendiko ekipuan partez.



Zorionak, **Aitzol,** zure lehenengo urtebetetzean. Musu bat Oierren, gurasoen eta aitite Valentin eta amama Mari Carmenen partez.



Zorionak, **Aritz,** zure 11. urtebetetzean. Musu handi bat gurasoen eta aitite Valentin eta amama Mari Carmenen partez.



Zorionak zure 10. urtebetetzean, **Maier.** Musu handi bat!



Zorionak motxuelillos! Hurrengo afaixe zuen konture. Mosu handi bat!



Zorionak **Eneko!** Musu eta belarri tirakada handi bat familia guztiaren partez. Maite zaitugu!



Uztailaren 13an urteak bete zituen **Luciak!** Zorionak neska polit!



# “Oraindino gurago dut txuleteri arroz zuriagaz lagundu, ogiagaz barik”

Tetsuro Maeda 2011n heldu zen Euskal Herrira, eta zortzi urte dira Etxebarrin lanean dabilela, munduko 3. jatetxerik onenean

**Tetsuro Maeda**  
Etxebarrri Erretegiko  
sukaldean lan  
egiten du  
• (Tokio, 1984)

## Berba bitan

**Sukaldaritzako erreferente bat?**  
Bittor Arginzoniz

**Inoiz ez zenioke ezetz esango...**  
Etxebarrriko ganbei eta txingarretan egindako kokotxa arrautzatzatuei

**Euskal gastronomiaren eta japoniarraren artean, zein aukeratu-ko zenuke?**  
Ezin dut bietako bat aukeratu, japoniarra naizelako eta Axpen bizi naizelako.

**Zer ez zenuke inoiz jango?**  
Intsektuak jatea asko kostatzen zait.

**Zaletasun bat?**  
Suari begira zerbaiz hartzea, eta mendira joatea

**Amets bat...**  
Urte erdi hemen bizitzea eta beste erdia Japonian.

**Zerk eman dizu atentzioa euskaldunongandik?**  
Inor baino euskaldunagoa izatea gustatzen zaizue. Euskal nortasuna oso barneratuta duzue.

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

**Gurasoek erakutsita hasi zen kozinatzen Tetsuro, eta liburutegian orduak emanda; egunero 2 edo 3 ordurako joaten zen kozinatzen ikastera. Plater errazak kozinatzen hasi zen Japonian, gurasoek gobernatzen zuten taberna batean. Lau urtean jardun zuen. Orain, Etxebarrriko sukaldean dihardu, baina aerobic irakasle eta eskapistetan sorosle lez ere lan egin du; eta 2.700 metrotan dagoen aterpetxe batean ere ibili zen sorosle.**

**Nola heldu zinen munduko hirugarren jatetxerik onenean lan egitera?**  
Hondarribian lan egin nuen aurretik, eta sukaldari batek esan zidan bazela dena txingarretan prestatzen zuen jatetxe bat, Michelin izar bat zuena gainera. Bada, probatzera joan nintzen. Asko gustatu zitzaidan. Batez ere, jan nituen Palamoseko ganbak. Bertako sukaldaritzak erraz eta perfektuak harritu ninduen.  
**Nola lan egiten da halako mailako jatetxe batean?**  
Eskuei begira lan egiten dugu, zer dugun eta zer egin dezakegun ikusita. Aiztoa edo parrila izaten dugu eskumako eskuan, eta produktua ezkerrekoan. Biak ahalik eta ondoen uztartzen ahalegintzen gara. Baina, hori lortzeko, asko praktikatu behar da, asko pentsatu, produktua ezagutu, ulertu...  
**Ez duzu gustuko Etxebarrriko japoniarraren lez ezagun izatea.**  
Ez (barrez). Japoniarra naiz eta Axpen bakarria izango naiz, bai, baina neure jatetxea eduki gura nuke. Oso etapa garrantzitsua bizi dut orain, baina hurrengora pasatu gura nuke. Bittor Arginzonizek egindakoa egin gura nuke. Bere bidea egin du, oinarri-onarritik hasita, eta orain mundu guztia-  
ren aitortza du.

**Epe laburrerako proiektua duzu?**

Etxean lagunentzat kozinatzen dut; ‘Tetsubarrri’-n, lagunek izendatu duten moduan. Ez dut gogorik joateko, baina nire proiektua jaioterrian, Japonian, aurkeztu eta garatu behar dudala uste dut. Jatetxe bat sortu, gurasoekin gura dugun bizitzak eramateko. Hala ere, Axpera bueltatu gura nuke, bizitzaz disfrutatzen.

**Axpeko borda batean bizi zara, zaratarik barik, bakartuta...**

Ez pentsa, naturak zarata handia egiten du gaue-tan. Emaztea eta biok bakartuta bizi gara, baina ez gara bakarrik sentitzen. Hainbat herri eta zerbitzu gertu daude. Bizilagunak ere hor daude eta integratuago sentitzen naiz.

**Egokitu zara hemengo ohituretara?**

Bizitzeko ohitura txikiak desberdinak dira hemen: ohean lo egitea, etxera oinetakoak kendu barik sartzea..., baina horrek guztiak ez dit eragozpenik sortu. Gauza bat ez dut lortu: ogia jatea. Oraindino gurago dut txuleteri arroz zuria-  
gaz lagundu, ogiagaz barik.

**Non jaten da hobeto, Euskal Herrian ala Japonian?**

Euskal Herrian jendeak produktuaren zapo-  
reagaz disfrutatzen du. Alde horretatik, hemen jaten da hobeto. Produktuagaz lotuta dago sukaldaritzak.

**Animatu zara euskaragaz?**

Berba gutxi batzuk dakizkit,

baina gaztelaniaz ere ez dakit guztiz ondo, eta lotsa ematen dit euskaragaz has-tea. Gazte-laniagaz barik, euskaragaz hasi izan banintz...



**Lauhortza**

Bixente  
Aizpurua Eguren  
Irakaslea



**Biba San Juan!**

Udarekin batera, eta urtero bezala, heldu zaigu San Juan Eguna. Gaurik laburrena eta egunik luzeena bera. Udari ongi etorria emateko, iluntzean, bazter guztietan ipurtargiak balira suak nabari dira eta su bero eta goxo horren inguruan kantuan aritzen gara:

*San Juan San Juan  
arrautza bi kolkoan  
beste bi altzoan.  
Sugeak eta saguak erre  
gariak eta artoak gorde,  
biba San Juan!*

Zenbat barre eta algara su garbitzailearen inguruan. Gauza txar guztiak erregai moduan botatzen ditugu sutara eta txingarren gainetik salto eginez gorputza eta arima garbitzen ditugu.

Txingarren berotasunez baliatuz txitxiburduntzia egiten dugu berrindartzeko eta gau luzeari aurre egiteko.

**Garai honek oporren usaina ere badu eta denok talante alaiarekin ikusten dugu geroa**

Garai honek oporren usaina ere badu eta denok talante alaiarekin ikusten dugu geroa.

Irakurle guztiok opor zoragarriak izan ditzazuela eta San Juaneko suak gure bizitzako gauza txar guztiak erreko zituenez itzulera sutsua eta animoz bete izan dadila. Denok ikusi nahi zaituztegu bueltan.

Laster arte!

